

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO
URTEKARIA

2.zk 2008
3,80 €

SORGINKERIA
DURANGOKO
MERINDADEAN

GARAI,
ATALAYA DE LOS
ZUBIAURRE

FUSILADOS
DEL FRANQUISMO

ROCK LOCAL



sumarioa



02.zk 2008ko azaroa

Astola iritzi orori zabalik dagoen aldizkaria da, horrek ez du esan nahi artikuluen sinatzaileekin bat datorrenik.

- 05· LABURREAN 08· SORGINKERIA DURANGOKO MERINDADEAN / IÑAKI BAZAN DIAZ 24· GARAI, ATALAYA DE LOS ZUBIAURRE / REBECCA GUERRA 38· "OTXANDIOen" LAN ABENTURA / ENRIQUETA SESMERO 52· FUSILADOS DEL FRANQUISMO / JON IRAZABAL 70· ELORRIO, UNA VILLA MEDIEVAL / DONA GIL 86· DURANGOKO UDAL ARTXIBOA / JOSE ANGEL OROBIO-URRUTIA 98· ROCK LOCAL / JUAN A. HERNANDEZ ETA IBAN GORRITI 114· ARRIOLA, 20 URTE 128· PORTAFOLIO/PABLO GARITAONANDIA 142· ARDOA ETA ARRAINAREN IBILBIDEA / GUILLER RUIZ DE ERENTXUN 158· BIBLIOGRAFÍA

Erredakzioa, publizitatea eta administraritza: Larrasoloeta, 3 48200 Durango, Tel. 94 681 80 66, Faxa: 94 621 80 23, e-mail gerediaga@durangokoazoka.com, www.gerediaga.com • **Koordinatzailea:** Txelu Angoitia • **Erredakzio kontseilua:** Jose Mari Uriarte, Jon Irazabal, Izaskun Ellakuriaga, Asier Atxa, Esther Garcia, Esther Soto • **Argazkia:** Txelu Angoitia • **Diseinua eta Maketazioa:** www.di-da.com • **Inprimategia:** Gertu koop. • **Lege gordailua:** SS-1525-07 • **ISSN:** 1888-234X

HITZAURREA

KAIXO ASTOLATARROK!!

Lehenengo alea atzo bertan aurkeztu genuela iruditu zaigu. Orduan ilusioz beterik hurbildu ginen zuengana.

Ordutik hona urtebete joan da. Aldizkariari egin zenioten harrera paregabea ikusirik, ahalegin itzela egin dugu gauzak hobetzeko. Gure asmoa da ASTOLAra hurreratzen denak intereseko zerbait aukitzea, intereseko zerbait ikastea edo, besterik gabe, irakurri gozatzeko zerbaitkin topo egin dezala.

Neguko hotzarekin batera, bidaia aparta egiteko gonbita egin nahi dizuegu. Bidaian bada zer ikusi: ahaztutako fusilatuengen egoera latza, Rock and Rollaren akorde gordinak, margolarien sentiberatasun plastikoa eta, besteari beste, inguruko sorginen isilpeko batzarrak.

Hori guztia eskualdean bertan, Durangaldean. Gauzak zehatz eta modu erakargarrian kontatzeko eta erakusteko apustua egin dugu.

Ea zure gogoei eta jakin-minari erantzuteko gai garen, eta ea asetzen zaituztegun. Gu behintzat gogotsu ari gara lanean, hurrengo alea zuei eskaitezko irrikaz.

Parece que fue ayer cuando presentábamos ilusionados nuestro primer número.

Ha pasado ya un año, y tras la excelente acogida que tuvo la revista, hemos puesto todo nuestro esfuerzo para mejorar y que todo aquel que se acerque a ASTOLA encuentre algo que le interese, aprenda algo nuevo o simplemente disfrute de su lectura.

Con los primeros fríos del invierno, te invitamos a un viaje que va desde la dura realidad de unos fusilados, víctimas del olvido oficial, hasta los acordes secos del Rock and Roll, pasando por la sensibilidad plástica de unos pintores o las reuniones clandestinas de nuestras brujas.

Todo ello sin salir de nuestra comarca, Durangaldea, con rigor y de una manera atractiva. Esa es nuestra apuesta.

Ojalá respondamos a tus expectativas. Por nuestra parte, ya estamos trabajando con las mismas ganas para que pronto volvamos a compartir una nueva entrega.

a

LABURREAN

KURUTZIAGAKO GURUTZEA | DURANGO

Bost mendeko gurutzea Kurutzia kaleko zenbait lekutan egon ondoren, zatitu eta duela gutxi berreiraikitako Vera Cruz ermitaren barrua eraman dute. Helburua da gurutzeak kutsaduren eta beste eragile batzen kalterik ez nozitzea. Toki horretan erakusketa bat eratuko dute, gurutzearen jatorria eta esanahia ezagutzen emateko, gurutzea Durangoko kulturaren erakusgarri garrantzitsuetako bat da.




BOLINKOBA | ABADIÑO

On Joxe Miel Barandiaranek aurkitutako kobazuloa da. Ondoren, 1932. eta 1933. urteetan, Barandiaranek berak, Aranzadi et al. Eguren egin zituzten indusketa. Goipaleolitiko euskal kobazulo interesgarrienetako bat da.

Urte askotan erdi ahaztuta egin ondoren eta 80ko hamarkadan harrobien aurrerapen anarkikoaren erruz desagertzeko zorian egon ondoren uztalean ikerketari ekin diote berriro.

Aranzadi elkarteko Mari Jose Iriarte zuzendutako indusketa horiei esker, hobeto ezagutuko dugu Euskal Herriko historiaurrea, eta bereziki gure eskualdekoa.



AMEZUA | BERRIZ

Maiatzaren 10ean Joan Bautista Amezuaren jaiotzaren 250. urteurrena ospatu zuten Berriko Kultura Etxean. Amezua jauna danbolin-jole dinastiaren sortzailea izan zen eta dinastia 1972. urterako arte irau zuen.

Gerediaga Elkartea antolatutako ekitaldiak hainbat laguntzaile izan zituen: Berriko Udal, Durangaldeko Txistularien elkartea eta Berriko Iremene eta San Lorentzo taldeak. Bertso, doinu eta hitzen bidez, familia horrek Durangoko Merindadean dantzari dantza mendez mende irakatsi izanak duen garrantzia gogoratu zuten.

Ekainaren 21ean, Ezpata-dantzari Eguna zela-eta, Amezuarren omenez egindako monolitoa inauguratu zuten.

Momoitioko San Joan nekropolia funtsezkoa da Durangoko Merindadean Erdi Aroa nolakoa izan zen jakiteko. Nekropoli hori 1982. eta 1987. urtean aztertu zuten, Iñaki Garcia Camino doktorearen zuzendaritzapean.

Inguruaren garrantzia areagotu nahiak, Garaiko Udalak, Gerediaga Elkartaren laguntzaz eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaz, VIII - IX. mendeko nekropoliarri balioa emateko egitasmoa bultzatu du.

Lanen artetik aipagarria da nekropolien zati baten berreraiketa, hilobi batzuei estalkiek jarri eta hilari berri batzuk eginez (bertan aurkitutako aztarnetan oinarritutako diseinuetatik abiatuz).

MOMOITIOKO SAN JOAN | GARAI**SAN AGUSTINEKO TEILERIA | ELORRIO**

San Agustineko auzokideek eta hainbat kultura-elkartek arduraturako daudela adierazti dute, Etxebarriko San Agustineko teileria hondatuta dageloa ikusirik. Zenbait ikerlarien iriziz, teila-lantegiak balio handia du etnografiaren aldetik. Gainera, eraikin hori da Bizkaia osoan zutik diraue teileria bakarra.

Durangaldeko Merindadeko Batzar Nagusiek Gerediagako zelalan elkartuko zirela berretsi zuen Joana I.ak, Bizkaiko Andreak, eta otsailaren 1ean Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Gerediaga Elkartea orduko erabakilaren 500. urteurrena ospatu zuten.

Ekitaldiaren buru Ana Madariaga, Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria zela, zenbait agintari eta Durangaldeko alkate gehienak elkartu ziren.

Agurren ondotik, Gregorio Monreal Zia historia-doktorea mintzatu zen zelaiaren esanahi politikoak. Protokolo-ekitaldia amaitu ondoren, elizate batzuetako dantzariak soka bat eratu eta betiko sokadantza dantzatu zuten. Urtemuga aitzaki hartuta, Jon Irazabalek

GEREDIAGAKO FORU-ZELAIA | ABADIÑO



Sorginkeria Durangoko Merindadean

ERDI AROAREN AMAIERAN ETA
ARO MODERNOAREN HASIERAN

TESTUA: IÑAKI BAZAN DIAZ

1

Sorginkeria noiz eta nola bilakatu zen arazo Erdi Aroko Elizarentzat?

Sorginkeriaren fenomenoa sortu ohi da errealitatearen arrazionaltasuna pentsamendu zientifikotik urrun dagoen gizarteetan; sorginkeria medikuntzan, metereologian, epaitegien jardueran, eta beste arlo batuetan ere azaldu daiteke. Honenbestez, sorginkerian naturaz gaindiko indarretan aurkitu behar dira gertaeren arrazoiak eta gizaki batzuek (sorginek) nolabaiteko indar ezkutua edo magikoa dute, jendeari kaltea egiteko. IV. mendean, erromatar Inperioaren erlijio ofizialtzat kristautasuna aukeratu zutenean, magia, aztikera eta nekromantzia aurreko garaiko idolatria paganoaren seinaletzat hartu zituzten eta, beraz, jazarpena egin behar zitzaien. Kristautasunaren iritziz, gaitza eta zoritzarra jatorrizko bekatutik eta Satanengandik zetozent. XIII. mendera arte Europa mendebaldeko kristautasunak deabruak eragindako ilusioa edo begitazioa balitz bezala ikusten zuen sorginkeria; hau da, deabruaren indarrak begitazio fantastikoak sartzen zituen gizakien buruan lo zeuden bitartean, besterik ez. Ilusioak ilusio hutsak zirela konturatzeko, nahikoa zen esnatzea edo exorcismoa egitea. Filosofia hori zegoen Canon Episcopi zeritzonaren azpian. Prüm-eko Reginon apezpikuak promulgatu zuen X. mendearren hasieran eta Graziano-k eskubide kanonikoan sartu zuen 1140. eta 1142. urtearen inguruan. Hala ere, XIII. mendetik aurrera egoera aldatu egin zen. Gaitzari eta deabruari buruzko hausnarketa desberdin bat sortu zen, Aristotelesek filosofia naturala aurkitzearen

ondorioz. Aristotelismoa zela-eta, teologo eta pentsalari batzuek, Tomas Aquinokoak beste batzuen artean, zenbait gai kontuan hartu zituzten, sorginkeriaren arriskuari gaurkotasuna emanez. Ordura arte arriskua baztertuta egon zen, heresiaren garrantzia zela-eta. Hona hemen aintzat hartutako gaiak: gizakien eta inkuboien (gizon itxurako deabruak) arteko eta gizakien eta sukuboien (emakume itxurako deabruak) arteko sexu-harremanak; gizakien eta Satanen arteko itunak; deabruak jokatzeko askatasun handiagoa izatea (jokabide hori gaitzakeriaren bidez azalduko litzateke Naturan). Azkenik, Basileako kontziliotik (1431-1449) aurrera demonologiaren eromena hasi zen; era berean, Satanen sektetan eta hura gurtzen zuten taldeetan sinisten hasi zen jendea, kultua antolatuta eta Eliza katolikoaren kultu antitetikoa zuten taldeetan. XVI. eta XVII. mendeetan paroxismora iritsi zen.



Inkisizioaren ikurra Kalebarriko etxe batean (Durango)



“Gure herrian omen dauden sorginen negozioa ere idolatria antzeko horretara mugatzen da”

Frai Juan de Zumárraga

2

Sorginkeriaren eta sineskerien arazoa Bizkaiko Jaurerrian

Sineskeriak (superstizioak) oso lotura estua du sorginkeriaz; gizartearen usteaz, pertsonaren etorkizuna aldatzeko gai den sinismen multzoa delako. Fede katolikotik eta horrek ezarritako praktiketatik urrundu egiten dira. Kalagurriko eta Calzadako elizbarrutiak (Durangoko merindadea horren eskumenekoa zen) sineskerien benetako presentziari eta sorginkeriaren presentzia kimerikoari aurre egin behar izan zion; dena den, agintariekin babesia eman zioten eta sinesmendunek fedeak zuten harengan. Hori baiezta zuen Alonso Castillo gotzainak 1529ko agindu batean:

“Gure Ian pastoralaren eginkizuna da mendekoei argia erakustera eta fede katolikoaren benetako loratzetik bideratzea; ezjakintasunaren erruz eta deabruaren azkartasunaren zein gaiztakeriaren erruz, eta beste batzuetan pertsonen gehiegizko jakin-minagatik sortzen diren akatsetatik baztertuz. Gure gotzaindegiko zenbait tokitan azken urteetan hainbat sineskeria eta aztikeria pairatu dituzte (Jainko gure jaunak onartuz).”



Arazo horri aurre egiteko, prelatuak Frai Martin Castañega-ri tratatu bat egitea esku zuen (Castanega frantziskotarra eta Ofizio Santuaren predikatzalea zen). Tratatu hura superstizioen aurkakoa zen, elizbarrutiko apaizak informatuta egon zitezen eta euren artaldeak behar bezala hezi zitzaten.

Tratatuari honako izen hau eman zion: Tratado muy sotil y bien fundado de las supersticiones y hechicerías y vanos conjuros y abusiones y otras cosas tocantes a la posibilidad y remedio dellas (Logroño, 1529). Tratuan Frai Martin Castañegak hainbat gai izan



Astolako (Abadiño) kartzelako harrapagailua eta girgiluak

zituen hizpide: kutunen eta salutadoreen sendatzeko gaitasunean sinistea; eguraldi txarra exortzizatzeko gaitasuna eta ucta hondatzen zuten intsektuak eskumikatzeko ahalmena; augurioen eta igarkizunen eraginkortasuna; eta abar. “Deabruaren eliza”ren ezaugarrien berri ere eman zuen, Kalagurriko elizbarrutiko apaizek igartzeko gai izan zitezen: “Deabruaren eliza”ren ministroek (belagileek eta sorginek) eta jarraitzaileek Satan gurtzeko zeremoniak egiten zitzuten, sabbatak edo akelarreak ziren; deabruari kantsakratutakoak “hegan egiteko gauza ziren” eta itxuraz aldatu zitezkeen; deabruari begirunea erakusteko musua ematen zioten “gorputzaren zatirik eta tokirik lizunenean”; euren seme-alabak sakrifikan zitzuten zeremonia haietan; deabruak sexuharremanak izaten zituen ministroekin eta jarraitzaileekin; eta abar. Enrike IV.a Gaztelako erregeak Gipuzkoari urte batzuk arinago, 1466an, emandako errege-agindu batek zera dio: “sorginek” edo “Deabruaren eliza”ren ministroek eragindako “sorginkeriak eta aztikeriak” bi ziren: gizonak zein emakumeak animaliei eta soroei lotzea, ondorengorik ez



Abadiñoko elizako alboko aldareko erretaula

izateko; eta Jesusi, Ama Birjinari eta Fede Santuari uko egitea, eta Satanen agindura jartzea eta hura gurtzea.

Honaino iritsita, honako galdera hau egin behar da: Euskal lurraldetan izan zen “deabruaren eliza”rik? Kultu antolatua, akelarreak, sorginak eta deabrua (mando “handi eta eder”

Akelarrearen antzezpena. Kriskitin Taldea. Txelu Angoitia



itxurakoa) eta gainerako topiko guztiak zituen deabruaren elizarik? Erantzuna erabatekoa da: ez, inondik ere! Gauza bat da belar-kontuan adituak izatea eta petrikiloak izatea, basoetako landaren gaitasun farmakologikoak ondo zekizkitenak eta edabeak prestatzen zituztenak; eta beste bat, erabat desberdina eta historiaren aldetik inongo sinesgarritasunik ez duena, deabruarekin ituna egindako sorginak egotea, gaizkia egiteko gaitasuna zuten sorginak egotea. Guziarekin ere, garai hartako teologoek, juristek eta tratatu-idazleek uste zuten egon zitekeela "deabruaren eliza" bat eta herritar guztiei sinistarazi zieten uste hura. Gauzak horrela, komunitatean

ezbeharren bat gertatzugero, berehala hasten ziren deabruarengandik hurbil omen zegoen norbaiten bila, hura errudun egiteko. Elizaren eta Koroaren zerbitzura zeuden teologo eta intelektual guztiak ez zuten sinistu itsumustuan sorginek botereak zitzatenik. XV. eta XVI. mendeetan egon ziren salbuespen batzuk, gutxi hala ere. Bata frai Juan Zumarraga durangarra izan zen. Elizgizon haren aburuz, andre errukarrien irudimenak sortzen zituen ustekoz botereak: "Gure herrian omen dauden sorginen negozioa ere idolatria antzeko horretara mugatzen da". Frai Juanek "omen dauden" zioenean, Canon Episcopi-k defendatzen zituen postulatuengintzak sintoniaz bat zetorren.

3

Sorginkeria zela-eta Durangon ezarritako zigorra

Kalagurriko eta Santo Domingo de la Calzadako elizbarrutiko eliztarren sineskeriak eta sorginkeria-praktikak alde batera utzita, Durangoko merindadean sineskeria eta praktika horiei buruz nolako aipamen historiko espezifikoak egin dituzte? Garranzitsuena XV. mendearen amaierakoa eta XVI. mendearen hasierakoa da. Anbotoko sorginei buruz ari gara. Historialariek, antropologoek, herriko jakintsuek eta publizistek hitz asko eta asko esan dituzte horiei buruz. Baliteke, gainera, Anbotoko izatea sorginkeria-gunerik garrantzitsuena, Zugarramurdin 1610ean epaitutakoaren ondoren. Nola sortu zen Anbotoko gunea?

Galdera horri erantzuna ematerakoan, historia nahastu egin da mitoekin, kondairekin eta literaturarekin, garai hartan Durangaldean gertatutako kutsatz eta itxuraldatuz. Jende artean zabalduen egon den teorietako baten arabera, Anbotoko sorginkeria-gunearen jatorria frai Alfonso Mellak XV. mendearen berrogeiko hamarkadan zabaldutako heresiarekin lotuta zegoen. Hala da, bai. Durangoko heretiko batzuek ondasun- eta emakume-elkarrean eratu omen zuten, eta erreta hiltzeari ihes egin zioten, mendian ezkutatuz. Gaur egun Urkiolako Parke Naturala den inguruari ezkutatu ziren (Anboto mendia eremu horren barruan dago), eta toki

Anboto. Jose Mari Uriarte



hartan orgia-zeremoniak edo akelarreak egiteari ekin zioten aurrerantzean ere.

Edozein modutan, gordetako artxiboko agiriak ez dira nahikoa praktika horiek egiazatzeko, eta Durangoko heretikoen eta Anbotoko sorginkeria-gunearen artean genealogia ezartzeko. Esan dezagun, asko laburtuz bada ere, heretikoen asmoa zela Espiritu Santuaren Aroa eta frantziskotar espiritualen (Joakin Fiore-ren tesi milenaristik jarraitzen zituzten) jarrerek uztartzea; sorginkeria-guneko kideak, betiere Inkisizioaren arabera, "deabruaren eliza"ko kideak ziren, eta ondorioz Satan gurtzen zuten eta arrestian aipatu ditugun ezaugarri guztiak zituzten. Beraz, bi heresia izan ziren, toki berean eta kronologiarien aldetik ere nahiko gertu sortutakoak, baina oso desberdinak ziren, bai helburuetan bai jokabideetan. Durangoko heretikoen helburua zen Erromako Eliza eraldatzea eta Jainkoaren legearen barruan jarraitzea; Anbotoko sorginek, aldiz, Elizaren aurka eta Jainkoaren legearen aurka jokatzen zuten. Gainera, ahaztea komeni ez den beste datu bat ere badago. Hara: Durangoko heretikoak existitu ziren, baina inkisidoreen eta berriemaileen buru beroek eskaini ziguten bertsioaren araberako sorginkeria-gunea oso eztabaidagarria da. Inkisidorea Juan Frias izan zen eta berriemailea Pedro Fernandez Villegas.

Anbotoko Damak edo Marik, sorginak alegia, frai Alfontso Mellaren heresia-tesiak jarraitu zituela uste duenik ere bada. Teoria hori ere baztertzeko modukoa da. Joxe Miel Barandiaranek, Resurreccion Maria Azkuek eta

Julio Caro Barojak jasotako euskal mitologiaren arabera, emakumezko numen horrek Anbototik gertu zegoen kobazulo batean zeukan bizileku nagusia, hala ere Mari Euskal Herriko beste hainbat menditan (Aizkorri, Altxueta, Oiz, Gorbeia, eta abar) ere agertzen da. Esan nahi baita, Euskal Herri osoko izaki mitologikoa dela, eta ez Durangaldekoa eta Durangaldearen historiakoa soilik. Gainera, emakumearen erlijiositasunaz eta kultuaz ari da, historiaurreko eta protohistoriako kultuaz. Basileako kontzilioaren ondoren sorgin-zaletasunaren eromena sustatu zuten teologo eta juristen buru beroen aburuz, deabruaren senide garrantzitsuenek, emakumeek alegia, Satan gurtzen zuten eta ez emakumea. Eromen haren gailurra inkisidoreen eskutik, besteak beste Heinrich Kramer eta Jacob Sprenger domingotarren eskutik, eta eurek sortutako Malleus maleficarum (1487) izeneko lanarekin etorriko zen. Historialariek ez dute egiaztu agirien bidez Euskal Herrian Erdi Aroan Mari edo Anbotoko Dama gurtzeko antolatutako inongo ekitaldirik.



● Sorgineriak babesteko ikurra. Iturritza baseria, Arrazola



Beste alde batetik, Anbotoko Dama edo Mari ile luzea orrazten agertzen zen, harkaitz batean eserita. Emakume edo sorgin hark suge-buztana eta ahuntz-hankak zeuzkan. Beraz, ez dugu ahaztu behar Mari lamien imitazioa zela. Irudi hori Greziako eta Erromako mitologiaren edo Erdi Aroko Melusinaren da. Jean d'Arrasek Melusina protagonista jarri zuen Lusignanen historia zintzoa lanean XIV. mendearren amaieran eta, mende berean, Barcelos-eko kondeak Diego Lopez Haroren (Bizkaiko Jauna) emazte- eta Iñigo Gerraren ama-eginkizuna eman zion Livro das linhages lanean.

Durangoko heretikoak eta Anbotoko sorginak, erlijioaren disidentzia-mugimendu

bera balitz bezala, nahasteko arrazoietako bat XVI. mendeko literaturan eta tratatugintzan aurkitu behar da. Horren berri ematen dute, esaterako, Pedro Fernandez Villegas-ek La traducción del Dante de lengua toscana en verso castellano...” (1506) lanean: “Anboto mendikoak esaten diete. Deabrukeriak egiten zituzten. [...] Heresia horiek zigortzen eta deuseztatzen”; Gonzalo Fernandez Oviedo-k Historia General y Natural de las Indias (1535) lanean: “Galdetu sorgin horiei, Anboto mendiko heretikoei eta frai Alfonso Mellaren sektaren jarraitzaile zigortuei”; eta egile anonimo batek Karlos I.ari (1516an edo 1517an) idatzitako eskuliburan: “Garai



Anbotoko damaren kobarako sarrera. Jose Mari Uriarte

Juan Fria ikisidoreak aurkitu zuen sorginkeria gune bat Durangaldean, 1499 eta 1508 urtearen artean

batean sekta eta heresia bat sortu zen. Anbotoko karitatea deitu zioten. [...] eta lurrean sorgin batzuk geratu ziren, horien aztarnek gaur egun arte iraun dute”. Sorgin horien aurkako epaiak eman eta aipatutako idazleek urte gutxira idatzi zituzten euren lanak; epaiak aintzat hartu zituzten, eta Mellaren jarraitzaileen ibilerak eskualde berberean izan zirenez, gertaera biak lotu egin zituzten.

Frai Alfontso Mellaren jarraitzaileen eta Anbotoko sorginen arteko harreman genealogikoa eta ideologikoa baztertu ondoren (Juan Padillak, kartusiarrak (Cartujano), “Durangas de embote” deitu zien Los doce triumphos de los doce apóstoles (1518) lanean), bada, lotura hori baztertu ondoren, galdera honi erantzuna ematen saiatu behar dugu: nortzuk izan ziren eta nolako jatorria izan zuten? Argitu behar da, Durangoko heretikoen kasuan bezala, honetan ere galdu egin dela dokumentazio garrantzitsuena. Hala da, bai. Gaur egun ez dakigu non dagoen Juan Fria inkisidoreak sorgin haien aurka burutu zuen inkisizio-prozesua eta, jakina, horrek mugatu egiten du gertatutakoa jakiteko aukera.

Durangoko heresiaren garaian ez zegoen Inkisizio-epaitegirik Gaztelako Erresuman. Errege

Katolikoen erregetzara arte ez zuten sortu Ofizio Santuaren epaitegia, 1478. urterako arte hain zuen ere. Pixkanaka ezarri zituzten epaitegiak Koroaren lurrardeetan eta 1499. urtean egoitza bat ezarri zuten Durangon; Kalagurri eta La Calzadako elizbarruti osoan eskumena zuen eta Juan Fria lizentziatura zen epaitegiaren burua. Arazoak zituzten lekuetan eta arazoak izandako lekuetan ezartzen zituzten egoitzak Inkisizio-epaitegiaren hasierako garai hietan. Beraz, Durangoko merindadea, heresia-aurrekariak kontuan izanik, Inkisizio sortu berria kokatzeko tokietako bat zen. Epaitegi haren eginkizuna zen erlijio-ortodoxia zaintza. Horri zenbait ohar erantsi behar zaizkio: bat, Inkisizioak metodo berezia erabiltzen zuen ortodoxiaren berri izateko (auzunean galdetzen zuen, fede-ediktuz baliatzen zen, salaketaz, torturaz, eta abar); bi, “deabruaren eliza” bazela eta sorginek botere kaltegarria zutela erabat sinistuta zeuden; eta hiru, petrikiloak eta igarleak benetan existitzen ziren. Inkisidoreak fede katolikoaren aurkako praktikak aditzera ematen zituen eta eliztarrak behartu egiten zituen praktika horietan aritzen zirenak salatzera, salatu ezik eskumikatu egingo zituztela mehatxuz. Egoera horretan eta teknika horiek erabiliz, Juan Fria inkisidoreak aurkitu zuen sorginkeria-gune bat Durangaldean. 1499. eta 1508. urtearen artean egin zuen aurkikuntza hura. Ez aurkitzea zailagoa izango litzateke.

RELAJADOS

Nombre	Sexo	Estado civil	Profesión	Vecindad	Viva/ Muerta al condenarla
1. M ^a de Mucharaz o Arrázola	Mujer	Casada con Juan Pérez de Ocara		Durango	Exhumación*
2. M ^a Pérez de Mondragón	Mujer	Soltera (?)		Durango	Exhumación*
3. Juan de Unamuno	Varón	(?)	Cuchillero	Durango	Relajado
4. Juana de Bilbao	Mujer	Casada con Juan Guerra		Durango	Relajada
5. Marina de Minica	Mujer	Soltera (?)		Durango	Relajada
6. M ^a de Cearra	Mujer	Casada con Sancho de Unamuno		Durango	Relajada
7. Marina Pérez de Goxencia	Mujer	Soltera (?)		Durango	Exhumación*
8. M ^a de Mondragón	Mujer	Casada con Pedro de Múxica		Durango	Exhumación*
9. Marina de Arriaga	Mujer	Casada con Ursuno		Durango	Exhumación*
10. M ^a de Lezama	Mujer	Soltera (?)	Tejedora	Durango	Exhumación*
11. Marina de Arrazola	Mujer	Casada con Pedro de Arana	Pañero	Durango	Relajada
12. Marina Sáez de Mendiola	Mujer	Soltera (?)		Durango	Exhumación*
13. M ^a Pérez de Ibarra	Mujer	Casada con Sancho Berroxa		Durango	Relajada
14. M ^a Pérez de Urquínaga	Mujer	Soltera (hija de Martín Sáez de Urquínaga)		Durango	Relajada
15. Teresa de Arrazola	Mujer	Casada con Martín de Asteiza	Cinturero	Durango	Relajada
16. Teresa de Aguirre	Mujer	Soltera (?)	Tejadora	Durango	Relajada
17. M ^a Pérez de Urquiola Beitia	Mujer	Casada con Rodrigo de Bollueba	Casa-solar Urquiola-Beitia		Relajada

Relación de personas procesadas por el inquisidor Juan de Fries (circa 1.500).

Fuente: BAZÁN DÍAZ, Iñaki, *Los herejes de Durango y la búsqueda de la Edad del Espíritu Santo*, Museo de Arte e Historia de Durango, Durango 2007. p.339.

*Exhumación previa de sus restos

23 lagun (19 emakume eta 4 gizon) auzipetu zituzten eta beste 17 (16 emakume eta gizon 1) kondenatu. Gainerako 6 lagunak (3 emakume eta 3 gizon) ez zituzten zigortu. Alegia, euren akatsak ukatu eta Elizak onartu egin zituen berriro. Kondenatutako 17 lagunetatik 7 hilda zeuden epaitu zituztenerako, hori dela-eta epaketa baino lehen gorpuak lurpetik atera zituzten. Antza denez, errudunak zirela egiaztago zuten eta gorpuak agintari zibilei eman zizkieten, heriotza-zigorra erreta bete zezaten. Balizko errua fedeari uko egitea izan zen. Deabruarekin ituna egin izana esan nahi zuen horrek. Pedro Fernandez Villegasek (baliteke epaketan egotea eta baliteke gertaeren berri zuzena zekien norbaitek informatzea) adierazi zuenez, Anbotoko sorginiek gaitz hauek egin zituzten: igarkizunetan aritu, sorginkeria egin, pozondu eta deabrua gurtu (deabruak hainbat itxura izaten zituen: akerrarena, mando handi eta ederrarena, eta gizon bereziaren itxura, bekokian adarra eta txerri-hortz oso irtenak zituen gizonarena). Beste hitz batzuen bidez, baina azken batean oso-oso antzera adierazten zuen Enrike IV.ak errege-aginduan Gipuzkoari esandakoa, eta Inozentio VIII. aren buldan adierazitakoa (bulda haren bidez, Alemaniako sorginen aurka jokatzeko boterea ematen zien Kramer-i eta Sprenger-i). Toki guztietan balizko arazo berbera azaltzen zen eta horren aurrean, frai Juan Zumarraga durangarrak zalantzak zituela esan zuen, "omen daudela" da arazoa.

Epaitutako gehienak gizarte-maila apalekoak ziren; oihalak, ehungak, gerrikoak eta ganibetak egiten zituzten bizimodu aurrera ateratzeko. Bi kenduta, gainerakoak durangarrak ziren. Emakume ezkongabeak eta alargunak gehiago ziren ezkonduak baino. Baino egia al da Satan gurtzen zutela? Suaren inguruan orgia-zeremoniak eta -kultuak egiten zituzten? Hegan egiten zuten gauez? Itxura aldatu egiten zuten? Merindadeko herritarrei, familiei eta uztei kalteak eragiten zizkieten? Segur aski ez. Izango ziren, bai, petrikiloen praktika sendatzialeak, superstizio-errituak eta sineskortasuna, auzoen arteko gorroto eta ezin-ikusiak, heresia-aurrekariak eskualdean, inkisidoreen begitazioak eta inkisidoreen limurtze-teknikak. Hori guztia eztanda egiteko moduko koktela zen eta, hain zuzen ere, horri esker "aurkitu" zuten eta "eratu" zen sorginkeria-gunea Durangaldean, Anbotoko sorginkeria-gunea. **a**

RECONCILIADOS

Nombre	Sexo	Estado civil	Vecindad
18. Domexa de Aguirre	Mujer	(?)	Durango
19. Juan Miguel de Cestona	Varón	(?)	Durango
20. Juan Pérez de Andregui	Varón	(?)	Durango
21. María de Adiregui	Mujer	Soltera (hija de la anterior)	Durango
22. Sancho Martínez de Unamuno	Varón	(?)	Durango
23. Teresa de Zumelaga	Mujer	Casada con Martín de Zumelaga	Valle de Arrázola

Relación de personas procesadas por el inquisidor Juan de Fries (circa 1.500) y reconciliadas.

Fuente: BAZÁN DÍAZ, Iñaki, *Los herejes de Durango y la búsqueda de la Edad del Espíritu Santo*, Museo de Arte e Historia de Durango, Durango 2007. p.339.


Iñaki Bazán Diaz

EHUko Erdi Aroko historia-irakaslea
Durangoko Kremenaren Historia
Zentroaren zientzia-zuzendaria



Atxondo

*Mariren hurbiltasunean, Anbotoko magaletan,
naturaren barnean ernetako basoko herriek sortutako
hiru elizateak bilduz, eraikitako udalerria.*



*Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango*

**herrien arteko elkarlana oinarri
durangaldeko ondasuna helburu**

GARAI, ATALAYA DE LOS ZUBIAURRE

TESTUA: REBECCA GUERRA ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA, ARTXIBOAK

HACE ya cerca de cinco décadas que Garai perdió a los que fueron tal vez sus más celebrados anfitriones. El silencio más atrayente se transformaba en recuerdo entre las laderas de los montes aledaños, perenne fuente de inspiración de las escenas que Valentín y Ramón de Zubiaurre hicieron protagonizar a una escogida nómina de sus solícitos lugareños.

Era aquél un doble binomio de difícil fractura, por un lado el de la relación de estos dos pintores con la pintoresca población del Duranguesado, y por otro el referente a la identificación de sus respectivas personalidades. Parece que el silencio impuesto por su compartida sordera se prolongó más allá de su muerte, de forma que hoy persiste la idea según la cual resultaría difícil diferenciar la personalidad y la obra de uno y otro. Muy al contrario, podemos decir que, llegado un momento concreto de sus respectivas trayectorias, los Zubiaurre no sólo se distinguieron, sino que llegaron a tomar caminos muy desemejantes, casi opuestos.

Una fructífera paroja

Tal diferenciación pareció perfilarse tímidamente desde el momento de su nacimiento: Valentín, el hermano mayor, nació en Madrid, en 1879, y Ramón en Garai, tres años después. Ambos lo hicieron en verano, cuando su padre, Valentín María de Zubiaurre, tenía por costumbre tomarse unas semanas de asueto en las que disfrutar con su esposa de una reconfortante estancia en la población en la que él mismo había nacido, cuya quietud le aliviaba además de los síntomas de algunas afecciones que padecía y con las que tenía que bregar el resto del año en Madrid.



En la capital ocupaba diversos cargos de relevancia, todos ellos relacionados con su dedicación a la música, pero la razón por la que su actividad adquirió una especial notabilidad fue por su cargo de Maestro Director en la Capilla del Palacio Real, si bien su faceta como compositor, aunque poco difundida, complementaría la de las aludidas obligaciones de manera igualmente destacada.

Llegar hasta dicho puesto le había traído no pocos quebraderos de cabeza, remontables a sus humildes orígenes en el Garai inmediatamente posterior a la primera carlistada, donde el canto de las monjas durante las misas, a las que acudía con su madre, habían despertado en él el interés por

la música, inquietud que enarbóló con férrea disciplina hasta lograr lo que con cabezonería se había propuesto desde un primer momento.

Aquella denodada lucha sería comparable a la que tendrían que enfrentarse tiempo después sus propios hijos. Como decíamos, Valentín, de forma excepcional, dada la fecha de su alumbramiento, nació en Madrid y como primogénito, era el más indicado para llevar el mismo nombre que su padre. El músico, según relató en su momento el Marqués de Lozoya, solía acercar a Valentín al piano cuando éste sólo era un párvido y su tara aún no había sido advertida, tratando de inculcarle la afición musical, queriendo perpetuar la profesión en la familia, actitud muy propia de la época.

“El matrimonio Zubiaurre se encontró sin saber cómo enfrentarse a la adversidad de criar dos hijos sordos de corta edad en una sociedad tremadamente prejuiciosa al respecto.”

Cuando tres años después nacía Ramón en Garai, y la sordera del primogénito estaba siendo asumida por el matrimonio, es de suponer que las ilusiones resurgieron con fuerza, pues además, el lugar del nacimiento debió constituir un motivo de alegría añadido para el padre. Cuenta Takeshi Mochizuki, en el trabajo monográfico que dedicó a Ramón hace ya casi treinta años, que éste nació con sus facultades auditivas intactas, siendo la causa de su sordera un accidente doméstico en la temprana niñez que le fracturó la nariz y desembocó en la pérdida,

no sabemos si progresiva o repentina, del oído. Con independencia de la exactitud de tal acontecimiento, que el propio pintor debió relatar a su amigo japonés, lo cierto es que los buenos augurios asociados al nacimiento en Garai no funcionaron en aquella ocasión y el matrimonio Zubiaurre se encontró sin saber cómo enfrentarse a la adversidad de criar dos hijos sordos de corta edad en una sociedad tremadamente prejuiciosa al respecto.

Destacada fue la tarea de la madre de los pintores, doña Paz Aguirrezzabal, una vergaresa de





“No fue otra la intención que animó el pincel de los dos hermanos que la de destacar la particularidad de las regiones con las que entraban en contacto, siendo Garai, sus valles y montañas, caseríos y labriegos, ritos y costumbres las piedras angulares del universo que les llegó a procurar la admiración internacional.”



03



04

enérgico carácter que impulsó desde el principio la educación y la carrera de Valentín y Ramón, a los que acompañó a lo largo de sus andanzas y viajes de aprendizaje por Europa. Aquella mujer, que hizo cuanto estuvo en su mano por evitar el marasmo de sus dos hijos, fue con el tiempo sucedida en su papel por su hija Pilar, quien adoptó el cometido de representante de sus hermanos, sobre todo en los tratos que, años más tarde, los pintores llegaron a establecer con galeristas y museos extranjeros.

Unas costumbres muy arraigadas

La familia Zubiaurre al completo mantuvo, especialmente durante los primeros años del

siglo XX, unos hábitos viajeros regulares en los que Garai y Ondarroa aparecían como los dos destinos estivales principales. Otras poblaciones cercanas, como Mañaria, Markina, Mundaka o Bermeo constituyan, asimismo, lugares en los que solían entretenerte yendo a pasar el día de excursión, hecho del que dan testimonio cientos de instantáneas que los hermanos tomaron por entonces. Paisajes y retratos familiares, que demuestran el interés de ambos por los avances de la técnica fotográfica, cuyo desarrollo resultaba imparable en aquel cambio de siglo. Tales reproducciones dejaban traslucir las personalidades de sus autores, dos jóvenes estudiantes de Bellas Artes en Madrid, que querían ser pintores y sentían un especial



El arte y el trabajo



La despedida de un pintor.



¡Sainé asunto un precioso!



Satisfacción y inspiración.



¡Aaaa, amá maitia!
(¡Peligro muchísimo!)



¿Sainen soy?



¿Quiere usted serlo de modelo?



Descansando.

“ Pintura y fotografía llegaron a difuminar sus respectivas lindes en la actividad artística de los dos hermanos, de modo que no resulta difícil advertir la simbiosis inspirativa entre ambas disciplinas. ”

FOTOS: EUSKAL MUSEOA. BILBAO. MUSEO VASCO



regocijo al autorretratarse en las más variopintas poses y actitudes que apelaban a la complicitad del espectador. Destacaban aquellas en las que, queriendo subrayar su condición de artistas, se presentaban ante el objetivo con caballete y atavíos pictóricos en ristre, en medio de montes y campos salpicados de garitarras persuadidos por el hecho de convertirse también en objeto de atención.

No fue otra la intención que animó el pincel de los dos hermanos que la de destacar la particularidad de las regiones con las que entraban en contacto, siendo Garai, sus valles y montañas, caseríos y labriegos, ritos y costumbres, las piedras angulares del universo que les llegó a procurar la admiración internacional, y por el que hoy la producción, tanto de un hermano como la del otro, acusa la característica esencial que la obra de todo artista debe tener: la del estilo propio e inconfundible. Algo que no les resultó fácil en los primeros años de sus respectivas carreras, en medio de la incomprendión de buena parte de la oficialidad artística que imperaba en Madrid.

La concomitancia temática respecto a otros pintores vascos de la época, como los hermanos Arrué, Aurelio Arteta, Julián de Tellaecho o Juan de Echevarría, por citar algunos ejemplos, ponía igualmente a prueba la originalidad y diferenciación de estos pintores, compaginándola con la mantenida respecto aquellos artistas que, como Ignacio Zuloaga, trasladaban al lienzo las inquietudes del pensamiento noventayochista.



Casa de los Zubiaurre.



Pilar de Zubiaurre (hermana de los pintores). Garai 1966.



Leopoldo Gutiérrez de Zubiaurre (sobrino de los pintores) y su esposa Mercedes García-Urtiaga.

Los avatares de la vida

Con las consecuencias de la Guerra Civil española, la vida de los Zubiaurre daba un giro que alteraba la relación que éstos habían mantenido tradicionalmente con Garai. Aunque los tres hermanos hacía años que desarrollaban vidas independientes en Madrid, a raíz de los matrimonios de Ramón y Pilar en 1917 y 1922, respectivamente, la coyuntura postbética terminaba por distanciarles hasta el punto de mediar un océano entre la trayectoria vital y profesional de Valentín y las de sus dos hermanos, instalados desde entonces en América (Ramón sobre todo en Chile, y Pilar, casada con Ricardo Gutiérrez Abascal -Juan de la Encina-, en México). A pesar de ello, el contacto fue continuo entre los tres y sus ocupaciones continuaron siendo las mismas. Valentín quedaba en Madrid al cargo de su madre, pues su padre hacía años que había fallecido (en 1914), y en la capital no le faltaban quehaceres, pintando, exponiendo, acudiendo a reuniones, y diversos eventos culturales (en 1945 sería nombrado Académico de San Fernando). En 1942, previendo la inminente muerte de su madre y padeciendo la lejanía de sus hermanos, el pintor tomaba la determinación de casarse con una duranguesa a la que conocía desde la infancia, Pilar Elejoste, con quien continuó manteniendo las arraigadas costumbres familiares, acudiendo entre julio y octubre a Garai, donde el pintor se sentía cada vez más a gusto, en medio del ambiente de tranquilidad que tan alejado estaba del

creciente bullicio madrileño. Allí realizaba cosas simples como presenciar las festividades de la localidad o conversar con sus vecinos, a los que seguía retratando en su estudio. Por aquél entonces, el pintor contaba ya más de setenta años y solía pasearse en motocicleta con el párroco del pueblo, o se sentaba a contemplar el panorama orográfico desde el jardín de su casa.



Habitación en la casa de los Zubiaurre

Unos buenos anfitriones

Dando muestra de su hospitalidad, el mayor de los Zubiaurre invitó, a lo largo de su vida, a muchos de sus amigos sordos, pintores como él, a pasar algunas temporadas en Garai, en su afán por mostrarles el origen de su inspiración. Entre ellos figuraron el norteamericano Kelly H. Stevens, el francés François Crolard, el catalán Jose de Togores o el lekeitiarra Ángel Garavilla, entre otros muchos, quienes quedaban prendados con los tipos y paisajes de aquél inadvertido rincón de la geografía vasca, convirtiéndose en devotos admiradores del mismo y no dejando escapar la oportunidad de practicar su oficio durante aquellas estancias junto a su amigo.

Ramón, por su parte, no se vinculó a Garai con la regularidad con la que lo hizo su hermano Valentín, en buena parte debido a sus ausencias durante sus viajes por América, especialmente prolongadas en la década de 1940. Sólo puntualmente, tras su regreso definitivo a Madrid, en 1951, Ramón volvería a recalar allí, donde son

contados, sin embargo, los testimonios que hoy pueden recogerse sobre dichas visitas. Los relacionados con Valentín y su hermana Pilar son más abundantes y los más veteranos testigos del pueblo les recuerdan aún hoy como amables anfitriones y activos participantes de cualquiera de los eventos en que se veía envuelta la localidad, siempre dispuestos a amenizar las jornadas de estío con suculentas chocolatadas y animadas tertulias.

Un permanente recuerdo

En 1961, dos años antes de la muerte de Valentín, los tres hermanos tuvieron de nuevo la oportunidad de rememorar los tiempos pasados en Garai, siendo la última vez en que se reunirían los tres juntos allí. Los hermanos eran prácticamente octogenarios y aquel reencuentro conjunto en la casa familiar, testigo de tantos capítulos de su infancia y juventud, cerraba algunas de las etapas más importantes de sus vidas, abriendo, sin embargo, la intemporal y postrera identificación de la familia con esa hermosa atalaya del Duranguesado.

 Traslado a Garai de los restos mortales de los hermanos Zubiaurre. 2002.



Vecinas de Garai. 1966. Miguel Angel Astiz 

Tras la muerte de Valentín, Pilar de Zubiaurre pasaría muchas temporadas en ella, manteniendo vivo ese espíritu familiar. Ella moriría en 1970, un año después que Ramón. Antes de que ello sucediera, se produjeron algunas iniciativas destinadas a recordar la labor de los pintores, como la exposición que en el verano de 1966 organizó la Asociación Gerediaga, en la que se expusieron más de veinte cuadros en la casa familiar y a la que acudieron artistas, estudiantes y aficionados de diversas procedencias.

En los últimos años no ha cesado tampoco el interés por ese recuerdo y en junio de 2002 la misma Asociación daba a conocer el traslado de los restos mortales de Valentín, Ramón y sus padres desde el cementerio de San Justo de Madrid al cementerio de Garai.

El verano pasado, sin ir más lejos, durante la celebración de la festividad de Santiago, algunas de aquellas fotografías que los hermanos realizaron en su juventud fueron expuestas en la Iglesia de San Juan Evangelista, acercando a muchos garaitarras la faceta escasamente conocida de los dos hermanos como fotógrafos amateurs.

Iniciativas todas ellas que no pueden ni deben cesar en un futuro, sino crecer y trazar nuevos caminos mediante los que difundir y ayudar a entender la personalidad de dos de los principales representantes de la plástica vasca, de su labor y de las complejas circunstancias que la condicionaron. 

Rebecca Guerra Pérez

Investigadora Departamento de H^a del Arte. Universidad del País Vasco.



Bizkaia Aurrezki
Kutxaren
Durangoko
sukurtsal zaharra,
1927. urtean eraikia
Diego de Basterra
arkitektuaren
diseinuaren arabera.



BBK
BETIDANIK
DURANGALDEAN

bbk =

“OTXANDIOEN LAN ABENTURA”

XIX. mendeko burdingintza krisialdiaren aurka

TESTUA: ENRIQUETA SESMERO ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA, ARCHIVOS

Erro hauek inprimatzten diren bitartean, Bilbon makineriak oso orube luzea lisatzen du, Ibaizabal alboan auzo berria eraikitzeko. Indusmakinek Boluetako Santa Ana burdingai faktoriaren azken aztarnak desagerrarazi egin dituzte, baita alboan bizi ziren haren langile askoren egoitzarenak ere. Ziur aski, leku horretan biziko diren gehienek ez dakite haien etxebizitza garesti eta “otxandiarren” gela apalen arteko desberdintasuna; orain dela ehun eta hogeita hamar urtetako langile horiek bezala, sendiarekin gauaz laneko nekearen atsedena bilatuko dute, baina geure arbaso haien asmatu ezin zituzten erosotasunak inguratuta eta, batez ere, aspaldi hartako pertsonek inolaz ere ez zeukaten lan eta gizarte eskubideen bermea dutela, gaur eguneko neoliberalismoak gutxiagotzen badu ere.

Oraingo geure helburua ez da XIX. mende amaierako lan baldintzak aztertzea, baina burdingintzari, liberalismoari eta, batez ere, Otxandiori dagokie. Duela mende eta erdi inguru, herri honetako gizonek osagai hauek gehi trebetasun asko, kezka aski, amorrux pixka bat eta -beharrezkotasunak bortxatuta- indarkeri pittintxo bat nahasi zituzten, ea horrela egindako

formulak Europan zehar beste eskulangileek lortu ez zuten krisialdi latzaren aukako konponbidea atzeratuko zitzaien. Zoritzarrez, bilakaera sakon baten eraginaren kontra ez dago produktu miraririk; eta geure durangaldekoak erasotzen zituen aldaketa, Historia osoan gertatu diren sakonetariko bat zen: industrializazioa. Badakigu haien borroka aldez aurretik galdua zutela, buruz eta adorez aritu arren. Jakin, agian beraiek bazekiten ere. Dena den, mendetan zehar bezala goi mailako kalitatearen ekintzan aritzen ziren horiek ekin eta jarrai berritasunari erantzuteko saiatu ziren; ez topo itsuki egiteko, haien teknika eta jakituria era berriezin bateratzeko baizik, bizimoduz aldatu barik ekoizpen industrialean murgiltzeko, beren tailerrek ez ezik, herri osoaren nortasunak bizirik iraun zean.

Abentura ez da oihan, basamortu edo poloetan solik bizitzen; egunerokotasunaren eskutik edonoiz hel dakiguke. Otxandiar horiena Boluetako fabrikan amaitu zen ala, kasu batzueta, menditan ezkutatu eta kartzelatik ihes egin ondoren, Bigarren Karlistadan “fakzioso”en alde parte hartzeagatik. Horra hor ondoko lerroetan kontatu nahi duguna, Bilboko auzo dotore berria eraikitzen den bitartean.



Kokapen berezia, berezitasun bikaina

Otxandioko historia, tokiko ingurune geografikoa ezagutu barik ulertezina litzaiguke. Beraz, goazen XIX. mendeko bere lurretatik txangotxo arina egitera. Hosto erorkoren basotan barrena ibiliko gara, batez ere ondo landatu eta zaindutako hariztietan. Mendiko klima hotz hezeak haritzen hazkundea sendotzen zuen, bero-ahalmen handiko egur-ikatza eskainiz. Petrolio eta elektrizitate ezean, horra hor erregai eraginkor ugari, ezin aproposagoa otxandiarren gehiengoak lan egiten zueneko tainerretarako: sutegiak. Egunsentia baino goiztiarragoak, goizeko hiru edo lauretak arratsaldea hasi arte, labetako sugarren dantzak eta mailu-ingudeetako eritmoak kalitate paregabeko ekoizpena sortarazten zuten: zartaginak eta sukaldetko burdineria eta, ia soilik, iltze mota anitz eta ferrak. Azken hauek oinarrizko garrantzia zuten, lehorrean odol-garraioak nagusi zirela -Bilborako trenbidea 1860ra arte ez zen zabaldu-, abereen ferrak ondo mantentzea eta sarritan aldatzea derrigorrezkoa izanez. Herriko perrataileen trebetasuna Bizkaian ez ezik, Espanian zehar ere ezaguna zen; haien izerdiaren salgaiak, Estatu erdian preziatuak.

Gure ibilbideari jarraituz, ingurukoaren gabetasun batez konturatuko gara: ia jaioberriak diren ibaiak ez dute ur korronte emaritsurik. Ur falta erlatiboa zen eta, batzuetan, benetakoa; udarik lehorrenetan iturruak eta putzuak agortuta zeuden eta disenteriak gupidagabeki ume eta zaharren



Lebario burdinola. Abadiño.

bizitzak mozten zituen. Uraren indar mugiarazle barik, burdinolarik ez eta, dakigunez, burdinea totxotan, lehen, eta sutegietarako xafletan, gero, ola hauetan eraldatzen zen. Haranetik, beraz, lehengaia ekarri behar zen; eta Durangaldeko haraneraino heltzeko, mendilerroa zeharkatu. Urkiolako menda bihirria ez zen marraztu gidari berriak izutzeko, baizik eta mando-lerroak eta idi-gurdia igo zitezen, astiro-astiro eta, horrexegatik, nahiko garesti. Geure buruari zera galdegiten diogu: zergatik ez beheratu egur-ikatza eta sutegiak, eta ferrak erosoagoa zen Ibaizabalaren ertzeko errepidetik Bilboraino eraman portutik esportatzeko, kontutan hartuz, gainera, merkatari bilbotar zorrotzek Otxandioko burdinan inbertitzen zutela.

Erantzuteko hegoalderantz abia gaitezen. Bai ibilera erraza! Honi esker erregeak Otxandiori

"villa" (hiribildua) izateko pribilejioa eman zion, hazkunde ekonomiko nabaria zuen XIII. mendean: Gaztelarako bi bide nagusien ataria izan zedin, Durangaldekoa eta Arratiakoa, alegia. Hortik behera, arin-arin Bilbokoak bezain lehiatsuak ziren Gasteizko merkatari esportatzaleenganaino heltzen zen, haien tratuen bidez Nafarroa, Errioxa, Gaztela-Leon edo Murtziako etengabeko eskariari horniketa egokia emateko. Horregatik, orain dela ehun urte eta erdi geure herritxoan burdingintza-lurralte aktibo zabal baten hiriburutzat agertzen zen: Areatza, Ubidea, Legutio eta, batzutan, Aramaio eta Aretxabaleta biltzen zituen triangelua, hango eskulangleekin harreman estuetan lana antolatzeko eta guzti, ikusiko dugunez.

Ferrak eta antzoko salgaiai ondo saltzen zirenez, biztanle gehienak sektorean lan egiteari ekin zioten. Bazeuden baserritar batzuk, nola ez,

okela- eta lor-abelgorriak eta basoak zaintzeko; merkatari gutxi, baina gisakoak; bizpahiru ostalarri, burdinera bila egunero etortzen ziren mandazainei atsedena eta lapikoko gizenak (tokiko patata goxoz eginda) eskaintzeko; medikua, apaizak, maisua; baina ia besterik ez zegoen -ez zen behar- aspaldi horretan. Ezinbesteko ogia garaiolariet Gasteizko labetatik erreta ekartzen zuten; zergatia ez da zaila asmatzeko. Espezializazioak maitasuna baldintzatzen zuen ere. Tailer nagusiek etxeoandre fina ez soilik, senarra gaixotzean edo alarguntsa geratzean negozioa zuzentzeko gai izan zitekeen laguntzailea bilatzen zuten, logikoki lankideen alaben artean. Udalaren monokromia endogamia pertsonala bezain nabaria zen. Azalduko dugun krisialdiak ez zituen ezkontza ereduak aldatu; politikan, aldiz, karlisten eta liberalen arteko gatazka sortu zuen, burdinalangile eta banatzaile guztien asmoak berdinak ez izateagatik. Iku dezagun zertan bereizten ziren.

"Santa Ana"ren orubea, geure historiarengatik garrantzitsu baten lekukoa



Paregabeak... baina ez parekideak

Haien trebetasun berdingabeagatik burdinagile otxandiar guztiak antzekoak izan arren, lan aldetik bi taldetan sailkatuta zeuden eta ondorioz soldata, gizarte estatus eta -agian txarrena- erabakitzeko ahalmen ezberdinak zituzten. Zeintzuk ziren?

Garai hartan euskaraz izkribu publikoetan idazten ez zenez gero, heldu zaizkigunetan erdaraz deritze: tailerren nagusiei, sutegien jabeak ez baziren ere, "maestros ferrajeros" edo 'maisu ferragileak'; langile arruntei, "morrones claveteros", 'morroi iltzegileak', kasu honetan, argi denez, gaztelerak herriko hizkuntzari hitz egokia zor diola. Egokia, esan dugu: nolabait "morroi"aren beste adierazpena 'zerbitzaria' den, gizon horiek zeudeneko menpekotasun sakona ondo adierazten digu; paper zaharretan nahiko gogorra zen "amo" berbak ugazaben boterea azpimarratzen du.

Aipatutako sailkapena Erdi Arotik zetorkien. Orduan, ogibide bakoitzaren eskulangileak ermandade edo "gremio" batean erkidetzen ziren, lana guztien artean banatzeko, kalitate maila jagoteko eta eritasunetan edo hil ostean dirua eta otoitzak emanez elkartasuna



Errementarieki Otxandioko elizan egindako lanak

eskaintzeko. Erabakirik garrantzitsuenak guztien artean hartzen ziren; hala ere, tailer gehiegirik egon ez zedin, ekoizpena murriztuz prezioak behera ez zitezen, langile hutsek maisutza-azterketa egiteko aukera gutxi zuten; "ofizial" hauetariko askok ugazabe lan-indarra merke saldu egin behar zien, goragotzeko itxaropenik gabe.

Toubkal, **Pablo**, **Mari Ta La Muerte**, con prismas diferentes; esprintan con la tecnología Logela Multimedia (los mejores de Euskal Herria en su sector) y cada día que pasa se conoce un nuevo grupo como **Hemorroides**, **Zebel**, **Frakaso**, **Trastorno** o **Desperdizio**.

Y con la llegada de la enriquecedora inmigración quién sabe qué aportará el futuro, qué nuevos sonidos acabarán siendo noticia en una comarca abierta al mundo. Tal vez, lleguen más años salvajes condenados a la esperanza tras una nueva plantación. **a**

ARRIOLA

20
urte

PROIEKTU KULTURAL BATEN HISTORIA 8 AKTOTAN

01

NARRATZAILEAK: Arriola Kultur Aretoko talde eragilea

Baga, biga, higa, laga, eta bostgarrena-kultura sustatu eta hedatum- soil, sail, bele, harma, tiro, eta hamargarrenean "hamaika gozamen", eta gozamenak pum!! Jo du hogeい. Hogeい!!!!

Zenbaki enikmatikoa ei da, matematikoentzat, hogeい zenbakia. Gure urtebetetze honek ez dauka enimaktikotik apena ezer. Gure ibilbidea lanak eta ilusioak markatu ditu. Bainagoazen, goazen... zatoz, zatoz...

Sssss... gora oihala... -Hor zaudete?- Bada, funtzioa hastera doa. Dena prest? Ixilik bost, lau, hiru, bi, bat... Akzioa!!! Bat, bi, hiru eta lau... martxa!

Bai, hogeigarrena beteko dugu eta ASTOLAK eskaini digun aukera aprobetxatz gure "Tunel del Tiempo" partikularretik osteratxo egitera goaz. Ez dugu katarsirk egingo. Ibilitakoaz harro gaude. Hausnarketa bai egin gura dugula eta bide batez debatea sortu. Elorrixon eta inguru osoan.



Segun Lazcano

Harriola handi bat dirudi Elorriok. Non du lorea, Elorriok?

Kulturaren heresia, horixe da herri honen lorea.

Elorrio ez da harriola hutsa, Arriola bat daukalako.

(Koldo Izagirre "Arriola hamaika gozamen" liburuan)



Arriola Artxibaora



Gure izana eta esana bertara ekarri gura dugulako; egoera bizi ez zutenei gure ilusioak kontatuko dizkiegu eta ahal bada gure pozoiaz kutsatu, azkenik, geure buruei eskainiko diegu aukera hau... astindutxo bat ez zaigu txarto etorriko eta.

Garai hartan bide bat zabaldu genuen. Eskuz zabaldutako bidea... gero askorentzat autopista bilakatuko zena. Hogei urte hauetan gure sorreraren zergatiak disolbatu egin dira;

urtu egungo kultur-azokan. Berba potoloak botako ditugu orain: asanblea, militante, bolondres... lantxo honekin horiek guztiak berreskuratu gura ditugu.

Nondik gatoz, nora goaz eta antzerako esapideak erabiliak badira ere, era berean beharrezkoak aurrera egiteko. Eta aurrera egiteko gogoa, ilusioa eta ausardia daukagu. Guk kutsatuta jarraitzen dugu.

"Tunlean" sartu eta atzera jo ahala, lurra hartzerakoan, talde gogotsu eta ilusionatua ikusten dugu. Egoera hura irauli gura zuen taldea ikusten dugu. Kultur eremu latz hura kultur urez gainezka jarri eta ur horietan bainatu, maitaleak bilatu, bidaiatu, musika jo, tiobiboa igo... gozatu. Eta horretarako hainbat bele beltzari jantzi beltza kendu eta itsasontzi piraten bandera egin eta nabigatu!! (Ordurako "Etiopía"

gure eskuetara heldua zen eta poetak idatzitakoarekin bat egin genuen)

Baina goazen tunelean barna. Murgil gaitezen garai haietako ur beltzetan.



Segun Lazcano

02

TXEMA: SSS... IXILIK! Jaso Teloia: 80-90 Hamarkada

Gure buruak 80ko hamarkadan kokatu behar ditugu. Gauzak ulertze aldera garaia bera aztertzena joko dugu, gainetik ez bada ere, eta gertaerak kontestu horretan kokatu. Zeren eta gertaerak ez dira berez ematen. Hirigintza, artea, musika... hau da, kultur adierazpen oro bere garaiko seme-alabak dira. Mugimendu popularrak ere. Egoera sozial eta ekonomikoaren isla. Goazen bada 20 urte atzera... Zer dira ba!

Kontraesan handiko garaia zen hura. Ilusioak eta mesfidantzak nahasturik; oportunismoak eta hausturak bat egiten zuten. Faszismotik ateratzen ari ginen eta batzuk oraindik euforia batean murgilduta bazeuden ere, egunerokotasun gordinak lurra hartzera behartu zituen.

Bigarren legealdia da eta herriean aldaketa handirik ez da nabaritzen. Aipatutako esaldia, salbuespenak salbuespen, Durangalde osora hedatua daitekeela deritzogu. Egoerak berez ez dira konpontzen eta garai horretan garbi ikusi zen demokrazia landu egin behar dela. Baino tamalez, orduko funtzionamendua aztertzerakoan frankismoaren inertzia nabaritzen dugu. Askok eta askok gustura sentitzen direlarik. Bertigo moduko bat instalatuta dago. Mundu berri bat eraikitzeari beldurra dion ingurua. Honi guztiari, gure ikuspuntutik, datu bat gehitu behar zaio: kultura, eta aisiaidlia orohar, ez dago gure agintarien lehentasunen artean. Kultura ez da eskubide bat. Ez da askeago hazteko, bizitzeko behar dugun osagaia. Askorentzat, cultura,

batzuen kapitoxoa, besterik ez da. Zergatik ez dago gure inguruan alkate kultur zalerik?

Ekoizpen kultural oro bere garraiaaren isla da. Arestian aipatu bezala gertaerak ez dira berez ematen. Ez dira berez sortzen. Kultura adierazpen guztiak bere garaiaren seme-alabak badira, gurea ere bai. Basamortu kulturalaren eta orduko gizarte egoeraren emaitza. Horren harira ziur gaude garaiotako kronista piktorikoa ez zela Zumeta izango. Desertu kultural hura Goyak edo Zurbaranek adieraziko zuten hobeto. Giro grisa. Ingurugiro goibela.

Garai hartan gainera zerbaite bitxia gertatzen ari zen. Jendartean behar eta nahi kulturalak handitzen zihozzen neurrian, era berean, herriean hustuketa kulturala abian jartzen da. Isurite anti-kulturala hedatu zen. Zinemak botatzen ziren saltokiak edota aparkamentuak egiteko. Eta Arriola berak etorkizun bera izango zuen herriko kultur taldeen ausardiagatik izan ez balitz. Elorrión irakiten zebilen sumendi kulturalak eztanda egin izan ez balu.

Egoera horri aurre egiteko Elorrioko kultur talde eta hainbat eta hainbat norbanako lanean jarri ginen. Egoera jasangaitz hari irtenbidea bilatu behar zitzaien eta era berean, politika kultural duin baten oinarriak jarri. Kariñoz gogoratzen ditugu urte haien. Atzerako begirada hau ez ezazue hartu "aititte batallas" baten oroitzapenak bezala. Gure fenomenoa ulertzeko ezinbestekoa baita hausnarketatxo hau.



Arriola Artxiboa



Biziko gara horrela berrehun bat urtez

Banku guztiak jabetzaren kaltez

Sufrimendua eta negarraren ordez

Parra eta farrandaz historia betez.

03 IXILIK!! AKZIOA: 87, 88, 89 trienio beltza...ABORDATZERA

Egoera ulertze aldera hona hemen zenbait datu.

Herriko kultur taldeen egoera hutsaren hurrengoa zen. Lokalik ez, eta zeudenak pena ematen zuten. Etengabeko partxeoa. Diru laguntzak oso urriak. Azpiegiturak ez... ez genuen aukerarik ikuskizun dunik antolatzeko. Aipatu bezala, beltza. Tabernak ziren gure errefugio bakarra. Aisaldia eta kultura tabernetan erretzen genituen "betan" emandako pelikulak ikusten. Ezer ikusteko kanpora joan



behar. Elorrixon ez zegoen gozamenerako lekurik. Gogaitasuna orokorra zen.

Giro horretan herriko taldeak batu eta beste norbanakoekin batera "Kultur Asanblada" eratu zuten. Asanblada horrek kulturaren egoeraren diagnostika egin, kultura eta politika kulturala definitu eta taula errebindikatibo bat osatu. Indarrak batu eta asanbladan adosten ziren estrategiak. Herriaren aurrean ere asanblada bezala agertzen ginen. Eta egia esan, lotura handia lortu genuen herritarrekin. Sumendi kulturala kargatzen ari zen. Nagusitu ginen eta gauzak argi geneuzkan.

Baina gure eskabideen aurrean luzamendutan ibili ziren. Egoerari aurre egin beharrean handikeriaz jokatzen zuten. Gor gure eskaeren aurrean. Demokrazia delegatuan instalatuta, kristoren beldurra zioten talde eta herritarren parte-hartzeari.

Eta sumindura gori-gori. Gauzak horrela mobilizazeari ekin genion. Plenoak apurtu, okupazioak, manifestazioak... Asko ginen, arrazoia genuen eta indartsu geunden.

Inguruan Durangaldean eta Debagoienean prozesuak eragin handia izan zuen. Esperientzia berria baitzen. Hedabideetan eragin handia hartu zuen, batez ere herriz-herriko orrialdeetan. Inguruko hairbat eragileren artean jakin-mina sortzen du. Inbidia apur bat, agian ere bai. Mobilizazioei esker, eskakizun garrantzitsuenak eskuratu genituen: ITURRI kultur etxea eta ARRIOLA. Elorrioko bandera-ontzia.



Segun Lazcano



Segun Lazcano

04 BAT, BI, HIRU, LAU...MUSIKA: Arriola errealitatea da

Behin itsasontzia gureganatz, lanari ekin genion. Maitale berriak bezala. Sutsu eta gartsu. Galduztako denbora berreskuratu gura genuen. Galduztako gozamen urteak bizi. Itsasontziaren uretaratzea eginda zegoen, 20 urteko ibilbidea eman duena.

Abian jarri genuen euskal kulturaren itsasoan barna, kulturak Elorriioneta inguruan espazio berri bat zeukan. Kontuan hartu behar da gure esperientzia lehengoentarikoa dela. Gune zabal bat. Gure itsasontzira sartzeko beti egon da zubia jarrita. Geureak beti izan ditu atea zabalik.

Baina aurretik egin diezaiogun eraikinari berari oroi men bat. Arriola eraikina Ameriketatik etorritako elorriotor indiano familia batek eraiki zuen. Baino gu baino hobeto Koldo Izagirre idazleak kontatzen digu hamargarren urteurrenaren aitzakiz, propio agindutako liburuan.: "... Fuldaindarrek diru apur bat egin

zuten Ameriketan / Indiano jatorrak legez / etxe eder bat egin zuten itzulitakoan. Fuldaindarrek zeukatena baino diru gehiago behar zen / Elorrioko beste indiano batzuen jauregien aldean / pareko gelditu zen etxea jasotzeko (...) Indiano modernoak / Fuldaindarrek haiek Arriola izeneko zinema bat zabaldu zuten: "txanpon-berri" ziren, baina bazeukaten memoria... Balendin Berriotxa jaio zen jauregiaren izena / musikari ilun bat / eta herriko zinema abandonatua: horixe ekarriko zuen akordura / Arriola berbak gaur / aintzinako gauzen hautsa besterik ez / baldin eta zoro talde batek / Elorriok bakarrik eman dezakeen / herese kasta horretakoek / Toponimo hori duindu izan ez balu. Eta zoroek bakarrik daukaten irudimenaz, zeluloideren mitomania malenkoniatu bat izan zitekeen utzikeria gaindituta / errealitate berri bat eraiki zuten duela hamar urte.

Baliabide barik, Esku hutsik. Hobeto ezin da esan. Artistak horregatik dira artista.

05**TXATO:** Arriola, martxan da. Jarrai dezala funtziok

Eta zoro talde hori lanean hasi zen... Alde batetik barneko eraketari heldu zion eta bestetik, eraikuntza egokitzeari. Ahaztu barik konpromisoa, hots, debatea eta ekoizpena.

Kulturak eskaintzen zuen guztiaz gozatu eta gozarazi gura genituen herritarrak. Bai. Hasieran esan dugun legez, maitale sutsuak bezalakoak ginen. Gozatu gura genuen antzerkiaz, musikaz, zinemaz, pinturaz, argazkigintzaz, dantzaz...; ikastaroak eta hitzaldiak; debateak eta omenaldiak... Itsaso zabala zen aurrez aurre geneukena.

Marinel talde zoro eta herese hori eskaintzaren arabera antolatu zen. Hainbat atal hainbat azpi-talde. Bolondresak. Bolondresekin egiten dira takillak, garbiketak, propaganda jartzea,... ilusioz, gogoz. Eta harro gaude. Militantzia gure ezaugarria zen.

Taldeak norberaren gustoaren arabera edo proiektoren beraren beharraren arabera antolatu genituen. Denetarik egitea tokatu zitzaign. Berdin antolatu, berdin kartelak pegatzen atera, berdin afaria zerbitzatu, berdin garbiketak egin. Garbitzea umeen saioaren ostean edo Ateneoa, gabeko ordu txikietan. Ez genuen kudeaketa kulturalean esperientzia handirik, baina gustoko bidean aldaparik ez. Azpitaldetan batzen ginen, arloz arloko programazio orokorra adostu eta asanbladan aurkeztu. Ondoren hilabeteko programazioa osatzen joan orekatua izan dadin. Orekatua eskaintza eta orekatua gastua. Hau da asanbleario eta militante izatea. Ilusioa eta lana.



Eta uste dugu kultura sustatze eta zabaltze horretan bi ereduak agerian utzi genituela. Behetik gorakoa gurea, sortzaile eta partehartzailea. Eta identitarioa. Garenak garelako.

Gu parametro horietan mugitzen garen bitartean, bestea, boterea, eskaparismo kulturalean mugitzen da. Kultura baino, kontsumoa bultzatzen duen eremuan. Horren harira fenomeno bitxia ematen da inguruan, oportunismo kulturala. Oportunismo hori kultur etxeekin gertatu zen. Zerbait egin behar zela eta ordura arte kultur taldeen eskaera eta ideia zena, irizpide sortzaileak medio, bere egiten dute eta "azpiegitura kulturalen" aldia inauguratzen dute.

06**BAINA GUREAK EZ DU ETENIK**

Herriak gehiago sinestu du gure proiektau, botereak baino. Eta kanpoko botereak gehiago lagundu digu bertokoak baino. Hau egia da eta min handia eman badigu ere horrekin bizitzen jakin izan dugu. Hobeto esanda, horren aurka. Eta ez da gozoa izan. Alde batetik gozamena ematen genuen baina ez ginen onartuak izan. Ezkutuan gordetzen den maitalea bezala.


Elorrioxtarra bere Arriolaz harro sentitzen den bittarrean udalak trabak baino ez dizkio jartzen. Esku hutsik hasi ginen eta oraindik, gezurra badirudi ere, duintasunerako bidea jorratzen ari gara.

Arriola proiektu sendoa da. Elorrixo ezin da ulertu Arriolarik gabe. Arriolak bere estiloa dauka. Eskaintza publiko eta duina.

Gureak, neurri batean, kantera egin du.

Kalitzteko eskaintza kulturala osatzen ahalegindu gara. Eskaintza kultural anitza eta zabala. Ahalik eta kultur esparru gehienak bultzatu izan duena; ezagutza eta ahalmen sortzailea bultzatzen saiatu gara; programazioa irizpideekin osatu dugulako; gizon-emakumeen ongizatea, aisiaidla-gozamena-kultura sustatu dugulako... edo lortzeko asmoz ari izan gara.

Mugalari izatea tokatu zaigu eta gustura egin ditugu Durangalde eta Debagoiena arteko kultur-kontrabandista lanak... Gustura egon gara batzuekin eta besteekin kulturaz eta ekintzen inguruan berbetan. Gustura sozializatu dugu gure esperientzia. Kultura baita gure grina.



Segun Lazcano

07

KULTUR SUSTAPEN ETA ZABALKUNTZA: Ateak beti zabalik

Maitaleek ekinean sortzen dute. Eta sortu izan dugun guztia gurata izan da. Ez diogu sormenari antisorgailurik ipini. Gugana jo duenak, zerbaitekin eterri izan denak gure babes eta laguntza izan du. Itsaso kultural horretan ez gara kudeatzaileak izan bakarrik. Gu ez gara saltoki kultural bat. Eta paternalismoan erori barik gure inguruan sortu zitekeenaren bateratzaile eta bultzatzaile izan gara. Ekimen kultural horiek dela musikan, dela antzerkian, dela dantzan, dela argazkigintzan, dela teknologi berrietai, aurrera atera ahal izateko, gure esku egon diren bitarteko guztiak ipini ditugu. Askotan galtze aldera. Bainak guk, horri, ez diogu beldurrik izan.

Betiere diru publikoa gestionatzeari diogun errespeto eta seriotasunaz. Bainak ekintza berriek ez digute beldurrik ematen.

Eta horren lekuko guk bultzatu edo sorturiko ekimenak. Espazio zabala izanik Elorrixoko sortzaileen gunea. Bateratzaile izateko dauagun gaitasuna aprobetxatuz sinbiosia lortu izan dugu talde eratzailea eta sortzaile berrien artean (teknologia berrietai adituak). Naturaltasun osoz gureganatu ditugu, espazio bera euren sormenerako azpiegitura bilakatuz. Ondorioz produktua etxekoagoa izatea ahalbideratu du. Komunikaziorako atal guztia,

propaganda, kanpainak... guztia bertan sortzen baita. Eskaintzen den produktuarekin eta bere filosofiarekin gertuago egotea lortuz. Mezuak sinesgarritasun handiagoa lortzen du.

Horrez gain debaterako, euskal kulturaren egoerari eta bere etorkizunari buruzko eztabaidea pilpilean zegoenean liburuxka xume bezain interesgarria atera genuen, gure botsgarren urteurrenen harira. Bertan Jorge Oteiza, Patxi Biskert, Alfonso Sastre, Igor Elortza, Unai Iturriaga, edota Paco Obregón moduko kultur eragileen ekarpenak irakur ditzakegu.

Liburugintzarekin jarraituz, hamargarren urteurrenean "Hamaika Gozamen" izeneko liburua argitaratu genuen. Gozatzeko liburua. Testoak Unai Iturriaga eta Koldo Izagirerenak dira; argazkiak Patxi Granados eta Segun Lazkanorenak.

Musikagintzan ere gure urratsak eman ditugu. Herriko taldeei ekoizten lagunduz eta batez ere gure jardunarekin zerikusia duten ekimenak CD formatuan argitaratuz. Urtero antolatzen dugun Jazz-Blues jaialdia bere 15. ediziota heldu zenean, bi CDz osatutako lana kaleratu genuen.

Besteok udaran ateak zarratu dituzten bitartean gu kalera ateratzen gara, MUSIKAIERAKIN. Azalpenik behar du? Ekitaldi honek ere gure ezaugarrien ondorioa dela esango genuke. Kultura-aisialdia ulertzeko modu bat. Jaialdi formatoa izanik (ekitaldi betekada izaten dira askotan) gurea udan zehar luzatzen da. Elorriortarrek eta ingurukoek astebururo kulturaz-ezagutzaz goza dezaten. Aukera hori eskaini gura diegu, behintzat.



Txelu Angoitia



Segun Lazcano

Badira ekimenak gurean sortzen direnak, gure babes eta daukatenak. Gure eraikina irekia izanik erraz ematen dira arrestian aipatutako sinbiosia. Horixe da hain zuzen ere Logela-Multimediarekin dauagun harremana. Hauek dira bolondres berriak: teknologia, etorkizuna, sormena eta konpromisoa uztartzen ditugu. Azpimarratzekoak dira "Break On Stage" eta 24 ordu digitalean ekitaldiak.

ARTEZ. Jada ez dago gure esku. Artez guk sortutako ekimena izan zen. Arriolako kidea informatuta egon zedin sortu genuen, gure programazioari sostengua eman gura geniolako. Eta izena ez genion ipini "arte" berbarekin jolasteko. Artez-ek zuzen esan gura duelako. Eta horrela jokatu gura genuen. Konpromisoa eta ekimen kolektiboa. Aldean zeramatzen etxeko zapatilak ere gureak ziren.



Fotos: Txelu Angoitia

08

ETA HOGEIGARRENA JO DUGU!

Irakurle, dagoeneko, elkar ezagutu dugulakoan gaude. Hemen biluztu gara. Betiere gidoiak hala eskaturik.

Gu sortu ginenetik hona egoera erabat aldatu da. Aisialdiak hartu duen hedadura aisialdi aukerak estate baterako biderkatu dira. Aisialdia, gaur egun, gizakiaren izatearen zati garrantzitsua da. Ekonomia familiarrean eragina duena. Ez da denbora librea bakarrik. Aisialdia aukeratzeko askatasuna da (eta urrutira joan barik gure inguruan badago zer aukeratu). Ahalmen sortzailea ere bada; gozamena, plazerra... bizi kalitatea neurrizerakoan kontuan hartzeko adierazlea. Eta hemen kokatzen ditugu gure buruak. Hemen gure jarduera. Hemen gure produkzio eta programazioa. Kultura aisialdian "normaltasunez" kokatu gura dugu. Eguneroko aukeren artean.

Eta eskaintzen ditugun produktuei gure ezaugarriekin kutsatu gura ditugu. Gure kalitate ikuspuntuaz gure galbaratik, asanbladaren galbaratik pasatutakoak. Eta horretarako gure funtzionamendua ezinbestekoa da. Militantzia ezinbestekoa dugu. Taldeka batu, produktuak aurretiaz ikusi eta hausnartu, aholkuak jaso eta horietaz

baliatu... Baina zeintzuk dira galbara horren irizpideak? Zeintzuk irizpideak?

Hizkuntza irizpideak, gu identitarioak baikara; berdinotasunaren irizpidea; ekimen berriak; berritzaleak, askatzatzaile izatearena, hezitzalea... Hau guztia aurrera eroateko asanbleario eta militanteak gara. Kudeaketa, koordinazioa, kontuak, txarteldegia, garbiketa, Ateneoa, antzerkia, musika, zinemagintza, jaialdiak, euskara, sarrerak, teknologia berriak, komunikazioa, kanpainak, ume zein nagusientzat, dantzak, ikastaroak...

Bide berriak jorratzen ari gara. Jorratutako ibilbidea oparoa izan da eta urteak ez dira alperrak igaro. Bainan, badakizu? Itsaso honetan gustura gabiltza. Ez dago marrazorik kalte egin diezaigukenik.

Arriola proiektu kulturala da. Proiektu publikoa. Inguruarekin-sormenarekin lotuta. Iragana luzea, oraina oparoa eta etorkizun gogotsua duen proiektua da Arriola.

Narratzaileak

Txano, Lobo, Mertxe L, Mertxe M, Txema, Jone, Ander, Imanol, Karlos, Txato, Josi, Itziar, Aratxu, Juan Luis, Edu, Jon, Peio, Leire, Edith, Ibon, Juan Carlos, Iker, Asier, Koldo, Gorka



Ameriketatik

Pablo Garitaonandia, Durango 1963

Ume nintzenetik entzum ditut
Ameriketatik ibilitako artzainen istorioak.
Hango lurraindeak mitifikatuta mituen
1989ko abuztuaren, Idahoan zeuden
bizkaitar batzuk bisitatzekeo aitzakiarekin,
ostera bat egin zuten Estatu Batuetatik.

Desde niño he escuchado historias
de pastores que habían andado por
América. Tenía mitificadas esas
tierras. En agosto de 1989, con la
excusa de visitar a unos vizcaínos
que vivían en Idaho, realicé un viaje
por los Estados Unidos.



J. L. Iturrieta eta biok, Santi Gurtubai artzainaren istonoiak entzuten, Arkotxa baserrian

J. L. Iturrieta y yo, escuchando las historias del pastor Santi Gurtubai, en el caserío Arkotxa









'ARMAK LEGEZ KANPO UTZI
NAHI DITUZTENAK TIROKATU
EGIN BEHARKO LITUZKETE'

"LA GENTE QUE TRATA DE
ILEGALIZAR LAS ARMAS
DEBERIA SER TIROTEADA"





Anselmo Zabaigogeazkoa, Frank Agirre eta Alberto Arbulu, Idahoko basoetan. "Ameriketa 7, han denu guk Ameriketa"
En los bosques de Idaho. "¿America 7, allí [en Euskal Herria] tenemos nosotros America?" a



ARDOA ETA ARRAINAREN IBILBIDEA OTXANDIOTIK MAUMARA

TESTUA: GUILLER RUIZ DE ERENTXUN ARGAZKIAK: TXELU ANGOITIA



Durangaldean duela mila urte baino arinago hasi zen jendea taldeka biziten. Talde haiekin batera, bide-sareen egitura berria sortu zen eta sareak herriak lotzen zituen. Bideek erabilera bat izaten zuten batzuetan eta beste batzuetan beste bat; gainera, bide batzuk beste batzuk baino zainduagoak ziren eraikuntzaren aldetik.



Sarrera hori egin diot artikuluari, proposatu nahi dizuedan ibilbidea ez delako kirol- edo aisialdi-proposamena huts-hutsean. Ibilbide honek historiaren alderdi bat aurkitzeko aukera bat emango digu, berez oso esanguratsua den faktore bat. Eta horri, nola ez, ibiltzeak ematen duen patxada gehitu behar zaio.

Oinez ibiliz, ibilbidea eraiki, erabili eta bizi zutenen ideiari helduko diogu nahitaez:

Munitibar eta Lekeitio aldera joz (beste aukera batzuk Bermeora eta Ondarroara iristea ziren).

Erljioa bizitzaren eta gizartearen jaun eta jabe izan zen garaian, Donejakue bideak berebiziko garrantzia izan zuen. Europan erlilio-gaietan izandako liskarrak zirela-eta, kristautasunak indartsu gailendu behar zuen lurralteko guztiak.

Garai berri hartan, Behe Erdi Aroan eta modernitatearen atarian, hegoaldearen eta iparraldearen arteko merkataritzak eta komunikazioak garrantzia itzela izan zuten; Gazteloa, Kantauro eta Europa arteko ardatzak alegia. Mugimendu handia egon zen: jendea, lanbideak, salgaiak, tropak... aberastasuna eta etorkizuna azken batean.

Esan genezake, beraz, hautatu dugun

Burdinak (uraren indarraz bat eginik) eragin zuen iraultza lurralte honetan, hark aldatu zuen errotik lurralteoa, hari esker garai ilunak atzean utzi eta arbasoek Ilustrazioaren zein industrializazioaren esparruak jorratu zituzten.

Burdinola handiek totxa egiten zuten; burdinola txikiek eta errementariek, ordea, lanabesak, tresnak, armak eta gerrarako gaiak. Basoak ustiatzen zituzten



"abiadura-ezari". Nik proposatutako ibilbideari "Ardoaren eta arrainaren ibilbidea" esaten zaio gaur egun.

Goi Erdi Aroan hego-ipar norabideko ardatz bat zegoen, Gaztelako meseta eta Kantauro aldeko portuak lotzen zituen. Antzinako ardatz hura pasabide naturalei eta arazorik gabeko orografiari loturik zegoen. Durangaldeko ibarra zeharkatzen zuen. Zehatz esanda, Urkiolatik sartzen zen, ondoren Atxarte, Mendiola, Abadiño, Astola, Durango, Iurreta, Goiuri eta Mauma zeharkatzen zituen; azkenaldean, Gerrikaitz,

Hala ere, beste ardatza, aratz naturala esango genuke, beti erabili zen. Hura zen biderik naturalena herri baten berezko premiea aurre egiteko, hornitzeko, komunikatzeko, babesteko eta merkataritza-harremana izateko.

Ibilbidea sendotu egin zen XIII. eta XIV. mendeetan, hiribilduen sorrera estrategikoaren ondoren. Eta hain zuzen ere, hiribilduen sorrera da arrazoia bide-sarea berriro planteatzeko. Hori dela-eta egin zuten Durangotik Urkiolarako bide berria, Izurtzatik eta Mañaritik igarotzen dena. XVIII. mendera arte bi aukerei eutsi zieten, bai Atxartekoari bai Mañarikoari.

ibilbideak ireki zigula modernotasunaren atea, gaur baino garai zailagoan barrez.

Egia da, baita ere, ardoak eta arrainak ez ziotela ekarri aurrerapenik eta etorkizun berririk herri honi. Nik proposatutako ibilbideari *Kantauritik Gaztelarako Burdinaren Ibilbidea* deitza egokiagoa izango litzateke; hartara, mota horretako sare europarrean txertatzeko aukera izango luke. *Artilearen ibilbidea* izena ere ez letorkio txarto, artilea izan baitzen Holandako bertsan kotizatu zuen Penintsulako lehendabiziko gaia.

ikatza egiteko. Hainbat lan egiten zuten: galtzadak, zubiak (garraio "handiak" egiteko modukoak), burdibideak, babeserako eraikinak, eliza handiak, herri estrategikoak, eta abar. Batzuek gaur egun arte iraun dute.

Baina garaiak aldaturaz doaz eta uste dut gaur egun egokia dela ibilbideari "Ardoaren eta arrainaren ibilbidea" deitza eta GRa (38.a) izatea. Ibilbide Handia izanik, ez dago galtzerik, nahikoa da seinale zuriei eta gorriei jarraitzea.

Deskribatu aurretik eta leku interesgarrienak azpimarratu baino lehen, esan beharra dago




bideak beti daudela loturik gizakiaren jarduerei eta, ondorioz, etengabe aldatzen direla.

Ibilbideak aldatu egiten dira historian zehar eta nik aukeratutako hau da horren adibide garbia.

Trazatu hau proposatz, ez du beste aukerarik baztertu nahi. Hala ere, jakina, guztiek zeharkatu behar dute Otxandio, Urkiola, Durango, lurreta eta Mauma. Dena den, leku horien artean beste leku batzuk aukeratu daitezke.

Nire irizpidea izan da historiaren ikuspegitik ahalik eta trazaturik adierazgarriena eta oroitazleena hautatzea, aldizkariaren nortasuna kulturala delako eta, esparruari dagokionez, eskualdeari begira eginda dagoelako. Jakinik,



Otxandio

hala ere, beste batzuek ibilbidearen ondoko zerbitzuei emango lieketela lehentasuna, edo beharbada turismoko eta bideragarritasuneko beste irizpide batzuk izango lituzketela. Ibilbide historikoa burutzea ezinezkoa den kasuetan (desagertuta, amortizatuta edo urbanizatuta dagoelako), baserri-ingurumenaren edertasunari begiratu diot, eta batez ere lasai ibiltzeari eman diot lehentasuna, zolatu gabeko tokietan eta paisaia baliotsuetan ibiltzeari.

Otxandion hasiko gara. XIII. mendeko hiribildua da

Ibilbidea lineala da. Otxandiorako autobusa goizean goiz hartza gomendatzen dizuet. Herri hori Bizkaiko atea da. Nahiz eta Ibaizabal haranaren barruan ez egon eta herriko urak Mediterraneora isuri, Otxandio Durangaldearekin lotuta egon da historian zehar; neurri handi batean ibilbide honi esker. Otxandiok une honetan ere baditu administrazio- eta gizarte-harremanak Durangaldearekin.

Erregebideak (kale nagusia da gaur egun), eraikinek eta enparantza nagusiak osatzen dute herriko Monumentu-multzoa. Leku horretan bi aukera ditugu. Bata, Oletara joatea eta ondoren Urkiolarantz abiatzea (ipar-iparmendebaldera jotzea). Aukera polita da, baina gaur antzeko beste proposamen bat egin behar dizuet. Nire irudiko hobea, ibilbide ofizialarekin bat egiten duelako eta, beraz, GR 38a denez, ondo seinaleztatuta dagoelako.

Edozelan ere, jakizue ez bata ez bestea ez dela jatorrizko bidearen berdina. Izan ere,



Anboto

jatorrizkoaren zatirik handiena gaur egungo errepiidearen asfaltoak ezkutatzen du.

Bi ibilbideak elkarren ondoan daude eta oso erakargarriak dira paisaiaren aldetik; pago-eta konifero-baso bikainez inguratuta daude. Bideaz isilik eta bakarrik gozatzeko aukera ezin hobea.



Ametzola errekatxo

Gaur egungo eta iraganeko mendi-bideak dira. Ibilbidearen zati batuetan joan zen mendearen hasierako trenbidearekin bat egiten du. Trenbide zahar hura basoa ustiatzeko erabiltzen zuten.

Ospital Kaleko Zubikit Urkiola erreka zeharkatuz, Otxandioko eskoletara gerturatuko gara. Asfaltozko bideak Kondebaso murgilduko gaitu pixkanaka. Dagoeneko Urkiolara bidean gaude.

Herriko gas-biltegiaren ondotik igaroko gara. Oletara joateko galtzada ikusiko dugu, baina alde batera utzi eta aurrera joko dugu, illuntxurantz.

Pago motzez osatutako baso polit horren ondoren, geziek erakutsiko digute bidea. Asfaltatu gabeko bideari jarraituko diogu. Ametzola errekatxo zeharkatuko dugu.



Zubia zeharkatzeaz batera, ezkerrerantz abiatuko gara. Toki horretan bertan dagoen ate handiak mugatu egiten ditu ibilgailuen joan- etoriak. Aramaioko (Araba) lurretan gaude.

Leku horretatik aurrera, mendi-bideari jarraituko diogu. Zur-ustiaketarako bide guztien antzera, arrain-hezurduraren formako zenbait adar ditu. Ez abiatu horietatik.

Bi norabide-gezik Urkiolarako bidearen berri emango dizuete. Bide zuzenetik zoazte, beraz. Kasu honetan (beste batzuetan ez) nahikoa da senaz baliatzea. Zati horietako batek, Morgola eta Oleta artekoak, antzinako trenbidearekin bat egiten du.

Bestaldetik ere, trenbideak Urkiolarako bidea egiten zuen. Ez pentsa lurrunezko lokomotora bat zenik. Bai zera! Idiek egiten zioten bultza zamari. XX. mendearren hasierari buruz hitz egiten ari gara, trenbide-trabesak egiteko zura erabiltzen zuten garaiaz.

Mapa topografikoak darabiltzanarentzat eta toponimoak dakizkienarentzat baliagarria izan daiteke jakitea, Urkiolako Parke Naturalean sartu aurretik, bidea honako toki hauetatik igarotzen dela: Bekomintegitik, Azunardi eta Martxazu mendien arteko lepotik, Martxazu eta Ollargan artetik, eta Iraunzazelaitik.

Dagoeneko igo dugu nahikoa mendi-bide honetatik. Hartxitxarrezko beste mendi-bide

Alluitz Urkiolatik



Santa Apoloniako iturria. Urkiola

batetik jaisten hasiko gara pixkanaka, harik eta arditegi batera iritsi arte. Bai erreferentzia horrek, bai agertutako panoramika zabalak (pagoak eta koniferoak atzean utzirik) Urkiolara iristen ari garela iragarriko digute.

Ezkerrean, Santa Polonia eta iturri ederra. Aurrez aurre Santutegia.

Urkiolaren gainean, Anboto-Alluitz mendigunea. Zer esango dizuet ba... Dena den, ibilbideari dagokionez, funtsezko tokia zen eta horren berri eman nahi dizuet. Pentsa, nolako nekea pilatuko zuten hona iristen zirenerako... Bidean geldiunea egin behar izaten zuten. Toki honetan atsedena hartzen zuten gizakiek; aldatu egiten zituzten zaldi-



Urkiola






Ibaizabal ibarra begien aurrean

Udarako izotza gordetzen zuen elurzuloa ikusi ondoren (izotz hura sendatzeko ere erabiltzen zuten), Gurutze-bidearen galtzadari jarraituz, "Hiru gurutzeen" begiratokira iritsiko gara.

Pixka bat atzera eginez, begiratokira iritsi orduko, Santo Kristoren ermitaren ingurutik abiatzen da ibarrera iristeko bidezidorra. Argibide-taulak argi jartzen du.

Bidezidor batetik jaitsiko gara Alluitz aldera, bidean basoak eta panoramikak tartekatuko ditugu. Atxartera doan mendi-bidea eta pasagune batzuk zeharkatuko ditugu. Santi Gaztelura iritsiko gara. Leku enblematikoa da, zalantzak gabe; jende askok ezagutzen du eta askok jaso dute argazkitan.

Leku horretan, homologatutako ibilbideak ezkerrera jotzen du, San Martinerantz, Untzillatxen mendebaldetik (Untzillatxeko mendigunea eskuinean utziz). Jatorrizko galtzadatik jarraituko dugu, XVIII. mendearen inguruan bertan behera utzi zuten bidetik. Atxarteko haizpitarterantz joango gara, Astxiki mendiaren gailurra begi-bistatik galdu gabe. Gailur horretan eraiki zuten X. mendean kastro edo gotorleku bat. Atxarteko haizpitartea kontrolatzeko eraiki zuten, leku estrategikoa zelako (aukeratu dugun ibilbideari loturik zegoen); aldi berean, Bizkaiko Jaurerriko sarrera ere bazen. Mendiaren gailurrean, 782 metrotara eraiki zuten gaztelua. Une oro zaindutako gotorleku hari IX. mendetik XIII.



mendera arte eutsi zioten, radio karbonoz egindako azterketek argitu dutenez.

Bide horietan soldaduak ibili ziren, jakina. Eta, hain zuzen ere, Astxikiko gazteluan (Bizkaiko sei gazteluetatik zaharrena da) aurkitutako armek ematen diete arkeologoei informazioirik handiena zenbait zalantza argitzeko.

Nahiz eta harrobiek inguruan kalte handiak eragin, kontraste handia egiten dute eskalada-eskola, ezproiez eta Atxarteko Zubiaz alderatuta. Zubia "lotan" dagoela ematen du; ibilbideko elementurik jatorrenetako bat denez, begirunea izatea eta zaintza merezi du.

Kareharrizko harlanduz eta manposteriaz egindako zubi polita da. Zaharra izan arren,

Atxarte



Astxiki Mendiolatik



errukirik gabeko exkabadora-gidari baten maniobra zoroei eusteko gai izan da oraintsu, neuk ikusi dut-eta (gidariari ez diot errurik egotzi nahi, baina tira...). Zubia ondo eraikita dago, gurdia oso astunei eta etengabeko trafikoari mendeetan zehar aurre egiteko moduan.

Mendiolarantz jarraituko dugu. Hurrengo helburua: Tabira, Durango. Susmoa dugu jatorrizko ibilbidea, gure ustetan lehenengo zena, desagertuta dagoela; asfaltoen, industrialdeen eta bizitegi-guneen azpian ezkutatuta dagoela. Gauza bera gertatu zaie bide zahar gehienei: eraikuntza-lanak egin dituztela, hobetzeko eta premia berrietara egokitzeko asmoz. Hori izan da, hain zuzen ere, aurreko zatiez gozatzeko arrazoia: noizbait ibilbidea baztertu eta berria hautatzea,

Mañaritik eta Izurtzatik igarotzen den ibilbide berria hobetzeari lehentasuna emanez.

Kasu honetan, zaitasunak gaindiezinak direla kontuan izanik, baserri-xarma eta asfaltatu bako bideak (oinez ibiltzeko oso atseginak) dituen ibilbidea aukeratuko dut. Otxandio eta Urkiola artean izandako irizpide berdinaren arabera jokatuko dut. Badakit Mendiolatik Abadiñorako galtzada ederra alde batera uzten dudala, baina tira... Abadiñotik aurrera jarraitza oso zaila izango litzateke. Zer egingo diogu ba...

Atxarteko zubitik, suntsitutako errota zaharraren ondotik igaro eta errepidera iritsi ondoren (Mikeldi GR 229 seinalea dago), ezkerraldeko burdibide ederretik abiatuko gara. Lubaki baten antzera babestuta eta kareharrizko arrokaz harritzatuta dago; alboetan landare-hesia eta tunel naturala ditu, hurritzez, lizarrez, sahatsez, huntzorriz, sasiz, goroldioz eta likenez eratua. Manposteriazko hormak hondatu xamar daude. Dagoeneko iritsi gara Mendiolako Auzunera.

Baserri multzo hori izango da, seguru asko, Euskal Herri atlantikoan gehien hedatutako eredu.

Mikeldi GR 229.aren bat egiten duen Asfaltozko bidetik jarraituko dugu lehenengo bihurgune itxiraino. Asfaltozko bidea alde batera utzi eta eskuineko mendi-bidetik abiatuko gara (asfaltatu gabe dago). Ezkerraldean ikuspegí zoragarria aurkituko dugu: arkudun baserri bat (arkua XVIII. mendeko ezaugarri barrokoa da) eta atzean



Mendiola

Untzillatx. Artzainen bizimodu gogorazten digu, artaldeak, gazta eta inoren premiarik gabe bizitzea, nahiz eta baserriko bizitzak apaltasuna, eta batzueta txirotasuna, gogora ekarri. Baserria ikaragarria da, apaingarririk gabeko eraikuntza berezi hori Europa osoan nabarmenzen da.

Mikeldi GR 229.aren argibideen laguntzaz, Durangorantz jarraituko dugu. Etxano auzunera iritsiko gara lehenengo. Hortik, Asfaltozko bidetik pixka bat igota, elektrizitate-dorretxoraino helduko gara. Ezkerraldetik, burdibidetik, sestra-kurba bereum, hartxintxarrezko mendi-bide batera iritsiko gara. Hor, ezkerrera jo eta Artabillatik behera jarraitu.

Tabira

Hurbildu Tabirako "perretxikoetara", jendeak horrela esaten dio jarleku eta mahai talde bat. Toki horretan zaldiak eta gurdiak batzen ziren, arrain gazitua eta Errioxako ardoa trukatzeko. Hori aitortzen duten lekukotzak jaso ditut.

Mandoak indarberritu eta gurdiak bete egiten zituzten; mandazainek ostatua hartzen zuten; muga-zergak ordaindu eta oinarritzko zein luxuzko gaiak garraiatzen zituzten... Azken batean, mota horretako bide bati dagokion guztia. Pentsa... muga-zergarik ez ordaintzeko zein bideri jarraitu behar zioten ere bertan galdetzen zuten.

Jakizue baita ere, Euskal Herri atlantikoan ekoizten zuten eta duten ardoa berdea dela, txakolina. Garai hartako jendearentzat ez zen "bizigarria" soilik, elikagarria ere bazeen (pertsona bakoitzak 2 litro edaten zituen egunean). Herri askok babestu egiten zuen txakolin-merkatua eta Errioxako ardoa saltzea debekatu egiten zuen, harik eta txakolin guztia agortu arte.

Ez da ikerketa sakonik egin behar duela zenbait mende eta oraintsuago egingo zituzten azpijkokoak eta merkatu beltza (ardo beltzaren ingurukoa) imajinatzeko.

Imajina ezazue, era berean, XIX. mendeko txakolinaren dekantazio-prozesuak ez zuela gaur egunekoaren zorroztasunik...

Hori guztia Tabirako San Pedro elizaren ondoan. Eliza hori da Bizkaiko zaharrena.

Nahiz eta beste eliza askori buruz gauza bera esan, zin dagizuet hori dela zaharrena.

Jarrai dezagun Hiribildurantz. Santa Anako arkuan hasi; Barrenkaletik, Larizeko dorretxetik jarraitu (harresiz inguratutako jatorrizko hiribildutik arkuak eta dorretxeak baino ez dute iraun); Udaletxetik behera jo (eraikin hori Napoliko estilo klasizistakoa da eta freskoak margotu zizkioten 1.772. urtean); eta Andra Mari elizan amaitu. Aipagarria da Eliza honen elizpe zoragarria. Euskal Herriko handiena da. Zureria (arkitektura-baliabide bikaina da zutaberik ez jartzeko) azpitik ikustea merezi du.

Tabira



Herria zeharkatuz, gaur egun hiri txikia dela ere esan genezake, lurretan, BI-634 errepidea azpitik gurutzatz, paseoa egingo dugu alde zaharrera jotzen duen kale nagusian zehar. Han aurkituko ditugu enparantza, San Migel eliza, herriko eraikinak, jauregitxoak, eta abar.

Goiuriko errepidetik jarraitu, autobideko tunela zeharkatu eta Asfaltozko auzo-bide bat jarraituz, Amatzako San Martin ermitara iritsiko gara, baserrien eta etxeen ingurutik igaro ondoren.

Bide horretatik ipar-mendebalderantz jarraitu behar da, bideko adarrei jaramonik egin gabe,



ermitaren eta Amatza Goikoa baserriaren ingururaino. Toki horretan asfaltoa amaitu eta mendi-bidea hasten da.

Ermitaren atzoko aldera joan zaitezte bi leihoa prerromanikoak ikusteko, motibo "iradokitzaleak" dauzkate-eta. 1.072. urtean behintzat ermita dokumentatuta zegoen eta, itxura guztien arabera, leihoa horiek zaharragoak dira. Horrek esan nahi du kristautasunaren garai ilunenetan ere irudimenak aurkitzen zituela zirrikituak.

Zalantzak gabe, toki horretan agur esaten zaio herriari, Durangori eta Durangoren erosotasunei, Oiz mendian murgiltzeko.

Itsasora orduko ez dugu beste gailurrik aurkituko.

Ermitaren ostean bi mendi-bide topatuko ditugu. Itxura oneko bidea, eskuinekoa, alde batera utzi eta ezkerreko joko dugu gorantz pixkanaka, baina etengabe. Baso bat eta pinudi gazte bat zeharkatu eta ondoren burdibide bat aurkituko dugu. Sestra-kurba berean aurrera eginez, Sologarai baserrira iritsi eta inguratu daiteke (baserria eskuineko aldean utziz).

Gorantz jarraituko dugu, beti mendiaren erditik, Ibaizabal bailararen eta mendikatearen panoramika zabala atzean utzirik. Asfaltozko auzo-bide batera iritsiko gara. Bide horrek



Santa Anako plaza



Santa Ana Pinondotik

laster, Momoition, bat egingo du beste bide garrantzitsuago batekin.

Momoition nahitaez begiratu behar zaio hegoaldeari eta ermitaren inguruari. Toki mitiko horretan antzinako nekropolia dago. Inguruko zuhaitzek gerizpe ederra egiten dute.

Iparraldera joko dugu errepidetik, aurrez aurre Santa Katalina ermita aurkitu arte. Errepidea ondoko ermita horrek santutxo itxura du. Errepidea zeharkatzerakoan kontuz ibili! Ez dago joan-etorri handirik, baina oso gutxi ikusten denez, arriskutsua izan daiteke.

Gorantz jarraituko dugu, lehenengo Lupita baseria eta ondoren Etxetxu baserriak atzean utzirik. Jatorrizko bidearen aztarna garbien ondotik ibiliz (alboetako hormak gaur egungo

kota baino gorago daude), Trumoition aurkituko dugu. Gaur egun pribatua den toki horrek izen bereko kastroa du barruan. Arestian aipatutako Astxikiko Kastroarekin batera, ibarraren eta herritarren babeslekua zen. Kontuan hartu antzeko kotetan daudela eta nahitaez igaro beharreko bideak zaindu zitzaketela.

Ezkerrera jo eta bide horretatik jarraituko dugu, ur-biltegiaren inguruan, bideko parrilla igaro arte. Biltegia ezkerrean utzi ondoren, mendi-bide oso polit bat jarraituz, baso misto batean murgilduko gara (sestra-kurba berean). Basoan pagoak, haritzak, urkiak eta abar ikusiko ditugu.

Bide horren amaieran, pago motzen artean, bat egiten dute zenbait bidek eta mendi-bidek. Toki horretatik, Mikeldi GR 229.



aren oharrei jaramon eginez eta ipar-mendebalderantz jarraituz, "guardetxea" aurkituko dugu. Txabola hori eskuinaldean utziz, han bertan hasten den mendi-bidetik jarraituz, bi mendiren artekigarako gara. Eskuinaldean Añao dago eta ezkerraldean Arakaldo. Beti ere lauan ibiliko gara.

Amatzorbeko iturriaren ondotik igaroko gara. Iturriak gertuko menditxo bati zor dio izena. Trago bat edan eta berriro ere bideari ekingo diogu, orain ere paraje lauan. Txabola luze eta baxu bat aurkituko dugu. Oiz mendiko hegoaldeko artzain-txabolen eredu da. Txabola eskuin aldean utzi eta insignis pinu artean beheraka goazela, harrizko ezproi batzuekin egingo dugu topo. Granitozko eta silizeozko harriak argi eske daudela ematen du. Harri horrek estimazio handia zuen eta asko erabili zuten eskualdeko baserriak eraikitzeako. Ezkerraldean, kota baxuagoan, Laisiarreko zelai berezia dago. Belardi horretan kofradiek

Amatzako San Martin ermita



batzarrak egiten zitzuten, herri-basoak, larreak, eta abar arautzeko.

Maumako haitzaren ondoko aldapa batetik, ibilbidearen barruan ipar-mendebaldeko lekurik urrunenera helduko gara: Maumako Ataria.

Begiratu arretaz galtzadari eta berehala konturatuko zarete bide honen handitasunaz. Orain dela 500, 600 edo 700 urte autobidearen parekoa izango zen. Ereparatu alboetako harlauzei, barruko enkatxo higatuari. Askatu irudimena eta entzun ferrek harria kolpatuz egiten duten hotsa, gurdien irrintziak eta mandazainen zein bidaiaien zalaparta.

Ederki. Honaino iritsi gara, **Maumaraino**. Hemendik aurrera jarraituz gero, eta Oizko mendi-lepoa gaindituko bagenu, Kantauri itsasoko azken isurialdean egongo ginateke. Leku horretan bertan jaiotzen da Lea ibai zaharra. Bertatik, jatorrizko galtzadatik,



Maumako ataria

Lekeitioko hiribildura iritsi gaitezke. Errekaren ondotik jarraituta, kortabasoak, burdinolak eta errortak ikusiko ditugu, Erdi Aroko herri horretara heldu orduko. Lekeitio hondartzak eta ontziolak aurkituko ditugu. 35 km inguruko bidea da, baina horren berri hurrengo batean emango dizuet.

Hasieran esan dizuedan bezala, lasai ibiltzeak, "abiadurari" (edo abiaduraz) buruzko antzinako ideiak eskaintzen dizkigu. Lurraldearen eta bizitzaren, azken batean kulturaren, beste dimentsio bat ere ematen digu; paisaia, arkeologiari eta abarri buruzko beste dimentsio bat. Nik ez dakit zenbaterainoko eragina duten horretan basoek, errekek, harriek, urak, oinez ibiltzeak, arnasa hartzeak, horiek eragiten diguten sentsazio ozeanikoek... Haurtzaroa auzuneetan


igotzearen eragina izango da, mendi-irteeren ondorioa, gaztetan Anbotora joatearena... Tira, kontu horiek gogora ekarrita, ez dut jarrera "arrarorik" erakutsi nahi. Hala ere, argi esanda, hori guztia gara, hor irakur daiteke gure historia eta horri esaten zaio idiosinkrasia.

Garaia aldatuz doaz etengabe eta "abiadura" dute bidelagun. Bada, egoera horretan, ibilaldi eder hau hausnartzeko lagungarria izatea nahiko nuke, ez dezagun sekula ahaztu aurrerapenaren leloetako bat, etengabe entzuten dugun leloa: "Eutsi iraganeko gauza onei!". Ondo ibili..

Guiller Ruiz de Erentxun

2008ko BIBLIOGRAFIA

Hurrengo orrialdeetan Durangaldeari buruz 2008. Urtean argitaratu eta Gerediaga Elkartea kudeatzen duen Durangaldeko Dokumentegian kontsultagai diren liburuen zerrenda aurkituko duzu. Informazio hau, eskualdeari buruz ikerketa egiten dabilzanentzat interesgarri izan daiteke. Seguru asko ez daude diren guztia. Horregatik, artxibo lana egiten laguntzea eskerronekoa izango da.




Uribarriko Ama Herri Barriaren Profeta

Uribarriko Andra Mari Eliza Durango 2008
ISBN: 978-84-92413-10-2. 106 or.




Uribarriko Andra Mari. Durango Zuri kantari 1510-2010

Uribarriko Andra Mari Eliza Durango 2008
CD



Amezuatarrok Danbolinaren inguruko familia bat


Irazabal, Jon Aldekoa-Otalora, Antón M^a Gerediaga elkartea 2008. 20 or.



José de Lejarreta Argazkilaria 2. gerra karlistan.

Uriarte, Astaloa, José M^a Sierra-Sesumaga, Víctor Durangoko Arte eta Historia Museoa 2007, abendu

ISBN: 978-84-7849-024-0. 220or.



Antxinako Berriz Bizimodua eta ohiturak


Gerenabarrena, Maite Kamiruaga Akaitze Berrizko Udala - Labayru Ikastegia 2008

ISBN: 978-84-86833-36-7. 592 or.



Eitzaga auzoko basetxe eta sendiak

Lasuen Solozabal, Balentin 2007, abendu 36 or.




Gerediagana

Irazabal Agirre, Jon Gerediaga Elkartea 2008
28 or.



Errotari Nº 5 - 2008

Sociedad Micológica Errotari
ISSN: 1885-2688. 1216 or.



Ermua Kantuan

Euskal birusa Elkartea 2008
74 or.



Durango

Bizkaiko hiribilduetan
zehar 7


Uribarriko Andra Mari Eliza
Bizkaiko Foru Aldundia 2007
ISBN: 84-7752-427-9. 68 or.



Elorrio

Bizkaiko hiribilduetan
zehar 8

Bizkaiko Foru Aldundia 2008
ISBN: 978-84-7752-434-3



Garitaonandia dorrea eta leinua

Torre y lineaje de
Garitaonandia

Lasuen Solozabal,
Balendin. 2008

Hurrengora!
arte!

**SAN JOSE JESUITAK
IKASTETXEA**

Karatzaga, 1
31004 DURANGO
Tfno: 94 481 00 50
Fax: 94 481 01 04
www.jesuitak-durango.net
sanjo@jesuitak-durango.net

ISO 9001:2000



bbk=



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia